



*APATTAERREKA ESKUALDEKO
INDUSTRIALDEAREN “18.1
(TOLOSA) – IBARRAKO LURSAILAK”
AZPIEREMUARI DAGOKION HIRI
ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA*

1. DOKUMENTUA. MEMORIA



TOLOSAKO UDALA

2021eko urt. 28an Udalbatzak emana

BEHIN BETIKO ONESPENA BALDINTZEKIN



1. dokumentua

MEMORIA

AURKIBIDEA

1.- SARRERA.....	1
1.1.-AURREKARIAK.....	1
1.2.-PROIEKTUARENXEDEA	7
1.3.-ANTOLAMENDU-IRIZPIDEOROKORRAK	7
1.4.-HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA IDAZTEAN KONTUAN HARTUTAKO INGURUMEN- IRIZPIDEAK	9
2.- HIRIGINTZAKO INFORMAZIOA	11
2.1.-LURRALDEAREN MUGAKETA ETA EZAUGARRIAK.....	11
2.2.-DAUDEN AZPIEGITUREN EGUNGO EGOERA	11
2.3.-HIRIGINTZA-PLANGINTZAOROKORRA	12
3.- PROPOSAMENAREN DESKRIBAPEN OROKORRA ETA HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA	14
3.1.-PROPOSAMENAREN DESKRIBAPEN OROKORRA	14
3.2.-KONTUAN HARTUTAKO ANTOLAMENDU-ALTERNATIBA EZBERDINAK	15
3.3.-ZONAKATZE XEHATUA ETA EZAUGARRIEN KOADROA	19
3.4.-PLANTEATUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA	22
4.- PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN EZAUGARRIAK.....	24
4.1- URBANIZAZIOAN AURREIKUSITAKO OBRAK	24
4.2.-LUR-MUGIMENDUA ETA FABRIKA-OBRAK.....	25
4.3.-SARBIDEAK, BARRUKO BIDE-SAREA, APARKALEKUAK ETA OINEZKOEN BIDEAK ...	26
4.4.-HARGUNEAK, KANPOKO AZPIEGITURAK ETA BARRUKO ZERBITZU-SAREAK	30



4.5.-IRISGARRITASUNA SUSTATZEA.....	33
4.6.- INGURUMENA LEHENERATZEA.....	34
5.- HAPBα INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA ERREGIMENeko IRIZPIDEETARA DOITZEN DELA JUSTIFIKATZEA	42
6.- BESTELAKO ZEHARRETARAKO GAIK (GENERO IKUSPEGIA ETA EBALUAZIO SOZIOLINGUISTIKOAK).....	44
6.1- GENERO IKUSPEGIA SARTZEA PLAN BEREZIKO PROPOSAMENETAN.....	45
6.2.- PLANAREN INPAKTU LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA	45
7.- IZAERA ARAUTZAILEA	46

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224



MEMORIA

1.- SARRERA

Apattaerreak Eskualdeko Industrialdearen "18.1 (Tolosa) – Ibarako lursailak" Azpierrezuaren hirigintza-garapena (antolamendu xehatua Hiri Antolamenduko Plan Berezi honen bidez ezartzen da) egungo Apattaerreak industrialdea zabaltzeko eskualdeko esku-hartze bat da, sustapen publikokoa. Esku-hartzearen sustatzailea TAILSA sozietatea da, eta sozietatean Eusko Jaurlaritzak (Sprilurren bidez) Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosaldeko udalek parte hartzen dute.

1.1.- AURREKARIAK

Apattaerreak eskualdeko industrialdearen proiektua sortzeko prozesua 1997an hasi zen, GI-2130A errepidea, Ibarako saihebidetaren 1. fasea, eraiki zenean, ordura arte iristezina izandako lursail baten hirigintza-okupazioa ahalbidetu zuen elementu katalizatzailea izan baitzen.

Apattaerreak industrialdearen antolamendu orokorrean bata bestearen atzetik garatuko ziren bi fase aurreikusi ziren hasiera hartan. Lehenengo fasean bakarrik sustatzeko moduko industrialdearen zati bat eraikiko zen, berez orekatutako lur-mugimenduak eginez, eta fase hori une hauetan jada gauzatuta dago. Bigarren fasea gerora garatzeko utziko zen, eta honen helburua izango zen ibarbidetaren behealdea kanpotik ekarritako lurrez betetzen joatea eta, ondoren, industrialde moduan garatu ahal izatea.

Ibarako, Leaburuko eta Tolosako plangintza orokorra aldatzeko espedienteak 2001eko maiatzean onartu zirenean, industrialdea garatzeko bigarren fase hori momentuz bertan behera uztea erabaki zen, lehenengo Plan Partzialean hasiera batean aurreikusi zen bezala, era horretara errekaostaren ibilguren behealdea berezko egoeran mantenduko zela bermatzeko. Ondorioz, 2001eko abenduan onartu zen Plan Partzialean jasotako antolamenduan ez zen aurreikusi ibarbidetaren lurrez betetzen joateko eta industrialdea garatzeko 2. fasea, nahiz eta, berez, ez zen itxi gerora hirigintza-alternatiba hori aintzat hartzeko aukera. Eta horri begira, ibarbidetaren behealdea aurrerago industrialdearen 2. fase moduan garatzea ahalbidetuko zuten neurriak eman zitzaizkien azpiegitura orokor nagusiei (sarbideei, uraldiei eusteko urmaelari, ur-deposituari eta ur-hornidurako hoditeriari, saneamendu-sareei eta erdi-tentsioko argindar-harguneari).



Onartutako Plan Partzialean Apattaerreaka industrialdea urbanizatzeko aurreikusitako obra guztiak 2005ean amaitu ziren, eta gaur egun industrialdeko lurzati gehienak daude industria-eraikinek okupatuta.

2008an onartu zen behin betiko 2001eko Plan Partzialaren aldaketa, antolamendu xehatua eraikitako errealitatera egokitzeko, eta egindako xehetasun-azterlanak barne hartu zituen.

Euskadiko Trenbide Sare Berria (AHT) Tolosaldean eraikitzen hastekotan zirela ikusita, Apattako industrialdearen 2. fasea garatzeko aukera berriz aztertu zen, Tolosaldeko AHTren obretan sortuko ziren soberako lur guztiak Apattako ibarbidearen behealdean botatzeko aukera ikusi baitzen.

Alternatiba hori planteatu zen eskualdean ingurumen-eraginak gutxitzearen ikuspegitik eta, aldi berean, bertako lurzoru-baliabide urriak jasangarritasun-irizpideetan oinarrituta ahalik eta ongien aprobetxatzearen ikuspegitik. Horrela, ingurumenaren ikuspegitik eta ikuspegi teknikitik interesgarria zen Euskadiko Trenbide Sare Berriko (AHT) Tolosaldeko obretako soberako lurak leku bakar batean biltzeko aukera. Izan ere, era horretara, lurraldean zehar hondakindegia ugaritzea eragotziko zen, eta, gainera, bide-sare orokorretik eskuera-eskuera egongo zen lurak isurtzeko lekua. Horrez gain, alternatiba oso positiboa zen lurraldea jasangarritasun-irizpideetan oinarrituta antolatzeari begira ere; izan ere, betelana egin ondoren eremuaren hirigintza-aprobetxamendua ahalbidetuko zuen.

Antolamendurako alternatiba hori, hau da, Apattako ibarbidearen behealdea lurrez betetzea eta, ondoren, Apattaerreaka industrialdearen 2. fasea garatzea, jada legez tramitatuta zegoen Tolosako udal-barrutian, 2009ko otsailean onartu zen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasota baitzegoen "18. Apattaerreaka" hirigintza-esparrua, eta horren baitan "18.1 (Tolosa) – Ibarra lursailak" azpieroemua, Tolosa eta Ibarra artean dagoen eremu partekatuari dagokiona, industrialdearen 2. fasea garatzeko.

Tolosako HAPO EAELABen aurrean tramitatu zenean, URA – Uraren Euskal Agentziak txosten bat aurkeztu zuen 2009-01-09 datarekin, eta, "18. Apattaerreaka" hirigintza-eremuari dagokionez, ibarbidea betetzeko baimena eman zuen, bi baldintza jarrita: errekastoaren bide naturalaren ondotik joango litzatekeen hondoko drain bat egikaritzea, baina erregularizatuta, eta drain horren proiektio bertikala ez eraikigarria izatea eta bere jabari publikoa mantentzea; eta bigarren baldintza zen uraren bidea perimetroan luzatzea tratamendu naturalizatu baten bidez.



Tolosan egindako prozesuarekin batera, Ibarrek 2009an ekin zion Arau Subsidiarioen Aldaketa Puntualari, Apattako ibarbideko hirigintza-garapen berria ahalbidetzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak 2010-02-09 datarekin formulatu zuen Ibarrek Plangintzako Arau Subsidiarioak Aldatzeko Espedientearen ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko ebaluazio bateratua egiteko erreferentziako dokumentua, eta bertan emandako oharrei jarraituz prestatu zen arau subsidiarioak aldatzeko dokumentua, Ibarrek Udalak hasierako onarpena 2010-10-26an eman ziona.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorrerako Departamenduak 2011-01-27ko datarekin igorri zuen Apattaerreak Eskualdeko Industrialdearen 2. fasea eta zabalkuntza garatzeko Ibarrek Arau Subsidiarioen Aldaketaren ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko aurretiazko txostena, eta bertan egindako oharrek behin behineko onarpena emateko dokumentuan sartu ziren eta ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko ebaluazio bateratuari erantsi zitzaizkion (2011ko maiatza).

Gipuzkoako Hirigintza Plangintzaren Atalak 2011ko uztailaren 14an egin zuen 5/2011 bilkura, eta bertan Gipuzkoako Apattaerreak Eskualdeko Industrialdearen 2. fasea eta zabalkuntza garatzeko Ibarrek hirigintza-plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntualaren aldeko irizpena eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolatze Batzordeak. Txostenean URA – Uraren Euskal Agentziak 2011ko uztailaren 12an igorritako aldeko txosteneko zehaztapen lotesleak jaso zituen.

Era berean, 2011ko abuztuaren 11n Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako zuzendari nagusiak Apattaerreak Eskualdeko Industrialdearen 2. fasea eta zabalkuntza garatzeko Ibarrek Arau Subsidiarioen Aldaketaren espedientearen aldeko irizpena eman zuen.

Azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolaketako foru-diputatuak 2011ko irailaren 12an aurkeztu zuen Apattaerreak Eskualdeko Industrialdearen 2. fasea eta zabalkuntza garatzeko Ibarrek Arau Subsidiarioen Aldaketaren ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko behin betiko txostena, eta aldeko irizpena eta baldintzatua eman zuen. Honakoak ziren, laburbilduta, txostenean adierazitako baldintzak:

- 1.- Uraren zikloa: Eskaera berriei erantzuteko behar diren ur-baliabideak izateari eta jabari publiko hidraulikoa babesteari buruzko beharrezko txostena eskatu beharko zaio administrazio hidraulikoari.
- 2.- Mugikortasuna: Industrialderako mugikortasun jasangarriaren plan bat idaztea eta ezartzea arautu beharko da.



- 3.- Zarata eta bestelako eragozpenak: Industrialdearen lehenengo fasearen urbanizazio-proiektuan ingurumena zaintzeko programaren baitan egindako jarraipenaren emaitzei buruzko informazio-ekarpena arautu beharko da.
- 4.- Ikuskapen-programa: Ustiapen-faserako kontrolak zehatzagoak izatea arautu beharko da, bai eta, horrez gainera, aurreikusi ez diren eta instalatutako jardueren funtzionamenduaren ondorioz egon litezkeen ingurumen-arazoak (zaratak, usaina, hondakinen kontrolik gabeko isurketak, eta abar) hauteman ahal izateko kontrolak barne hartzea ere.

Apattaerreak Industrialdea zabaltzeko Ibarraiko Plangintzako Arau Subsidiarioen Aldaketaren espediente hori 2012ko maiatzean onartu zen behin betiko.

Aldi berean, TAILSA Hiri Antolamenduko Plan Berezia (HAPB) idazten hasi zen, eta 2009an eremua antolatzeko aurrerapena idatzi zuen eta proposamen ezberdinak egin zituen, jarraian dauden irudietan ikusten den moduan.



Lehenengo antolamendua ez zuten onartu udalek, Tolosako eta Ibarraiko lurzati-eskaintzak oso ezberdinak zirenez. Gogoeta horrek eraginda, bigarren antolamendua planteatu zen, eta bigarren horretan oinarrituta egin zen HAPBren aurrerapen bat, eta bertan lurzati-azalerak eta aprobetxamenduak zehaztu ziren. Ikusten den moduan, antolamendu horietan ez



zegoen aurreikusita GI-2130A errepideko erdi-lotunea, eta ez zuen, beraz, Ibarrako plangintzako arau subsidiarioen aldaketak gero adierazitako eremua kontuan hartzen.

Behin Ibarrako arauak aldatzeko dokumentuan eremu hori zehaztu ondoren, 2012ko abenduan planteatu zen erdi-lotune berria jasotzen zuen antolamendu berria.



Antolamendu horri jarraituz egin zen zonakatzeko xehatua eta lurzati eraikigarrien ezaugarrien koadroa finkatzen zituen HAPBren eduki nagusiak laburbiltzen zituen dokumentua. Gainera, 2014ko urtarrilean Apattaerreak Eskualdeko Industrialdearen "18.1 (Tolosa) – Ibarrako lursailak" Azpieroemua Urbanizatzeko Aurreproiektua egin zen, eta bertan nahiko zehaztasunez finkatu ziren jarduketa horren urbanizazio-kostuak.

Bestalde, 2009an idatzi zen Apattako ibarbidea Tolosaldeko AHTren obretako materialekin betetzeko proiektua. Proiektu horretan aurreikusten zen Apattako ibarbideko ibilgua egokitzea, ibarbidean erregularizatutako ibilgutik hondoko drain bat egikaritzea, lehen aipatutako URaren txostenean ezartzen zen bezala, Apattatik San Blaserako bidea desbideratzea eta Ibiurko urtegitik Ibarrara ura hornitzeko hoditeria aldatzea eta beharrezko betelanak egitea.



Euskadiko Trenbide Sare Berriko (AHT) obretako materiala hartu ahal izateko Apattako ibarbidea egokitzeko obrak 2011ko urrian amaitu ziren, eta AHTko obretako soberako materiala hartzeko "depositua" abian jartzeko baimena 2012ko urrian eman zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak.

Hortik hasita, pixkana joan zen betetzen ibarbidea Tolosa-Hernialde eta Hernialde-Zizurkil tartetako materialekin, eta betelanaren proiektuan aurreikusitako materialaren (1.300.000 m³) % 70era arte iritsi zen gutxi gorabehera.

Betelana osatzerik ez zela izango ikusita, lursailen jabea den enpresa publikoak, TAILSAK, eremuaren antolamendua berriz egitea planteatu zuen, lur-mugimenduak 980.000 m³-ra murrizteko eta industrialdetik egungo biribilgunetik pasatu gabe irteteko GI-2130A errepiderako erdi-lotunea kentzeko. Urbanizatu beharreko eremua murriztean, Ibarako arauak bigarren aldi aldatu beharko zirela ikusi zen, hain zuzen ere, hiri-lurzoruaren mugaketa zehatz-mehatz garatu beharreko eremuetara doitzeko.

Apattaerreak Eskualdeko Industrialdearen 2. fasea eta zabalkuntza garatzeko Ibarako Arau Subsidiarioen Bigarren Aldaketa horren hasierako onarpenaren dokumentua 2016ko martxoaren 17an onartu zuen Ibarako Udalak. Dokumentua jendaurrean jarrita egon zen denboran Tolosako Udalaren alegazio bakarra jaso zen, eta planteatzen zuen garapenean kontuan hartu behar zela Apatta auzoaren, hirigintza-garapen berriaren eta Tolosako San Blas auzoaren arteko mugikortasuna hobetzea. Tolosako Udalaren alegazioak zehatz-mehatz honako hiru alderdi hauek planteatu zituen:

- Plan Bereziak kontuan hartu beharko du, udalerrien artean aurreikusitako parkea egin ahal izateko, iparraldeko azpieren dagoen azalera osoa urbanizatu beharko dela, nahiz eta lurzoru horiek azpierenetik kanpora egon.
- Mugikortasunari dagokionez, Apattaerrekako industria-garapen hori bidegorri baten bidez lotu behar da Apatta kalearekin.
- Azkenik, aztertu beharko litzateke Apattako industrialdea, ahal izanez gero, Tolosako hilerriarekin (San Blas auzoa) lotzeko aukera.

Tolosako Udalak aurkeztutako alegazioa onartu egin zen.

Alegazio horretan oinarrituta idatzi zen behin-behingo onarpena jasotzeko 2016ko uztailaren 14an aurkeztu zen dokumentua, eta 2017ko apirilaren 4an onartu zuen behin betiko Foru Aldundiak.



Aldi berean, TAILSA, 2014tik, Ibarako Arauen Bigarren Aldaketan adierazitako eremua hartzen duten antolamendu posibleak sakontzen joan da, Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren dokumentu honetan jasotakora iritsi arte.

1.2.- PROIEKTUAREN XEDEA

Hiri Antolamenduko Plan Berezi honen xedea da Apattaerreka Eskualdeko Industrialdearen 2. fasea eta zabalkuntza garatzeko Ibarako Arau Subsidiarioen Bigarren Aldaketan eta 18.1 azpierenmurako Tolosako Hiri Antolamenduaren Plan Orokorrean planteatutako hirigintza-antolamenduaren ezaugarriak zehaztea.

"18.1 (Tolosa) – Ibarako lursailak" Azpierenmua osatzen dute jarduera ekonomikoetarako lurzatiak hartzen dituen eremuak eta iparraldean dagoenak, hau da, hiriarteko parkea eta haren sarbideak eta zerbitzuak biltzen dituenak. Gainera, eta udalekin adostuta, Plan Bereziaren jaso da industria-garapenaren sustapenak eremutik kanpora dagoen ondoko esparrua urbanizatu beharko duela planteatuta dagoen hiriarteko parkea osatzeko.

1.3.- ANTOLAMENDU-IRIZPIDE OROKORRAK

Planteatutako proposamenek, funtsean, jarraian azaltzen diren antolamendu-irizpide orokorrei erantzuten diete. Lehenik eta behin, beraz, nabarmendu behar da Apattako industrialde osoaren izaera udalaz gaindikoa eta/edo udalen artekoa dela, Plan Berezi honekin antolatzen den zabalkuntza barne dela. Izaera horrek justifikatzen du lursail guztiak hirigintzaren ikuspegitik batera eta osotasunean hartzea, nahiz eta Apattako industrialde osoa osatzen duten hiru udalerrietako bati atxikita egongo diren.

Abiapuntuko kontzeptu horretatik abiatuta, garapen berriek honako parametro hauei erantzuten diete:

- Apattaerreka industrialdearen 2. fasean antolatutako hirigintza-garapen berriak egungo industrialdeko bideen eta lurraldearen zabalkuntzan kokatuko dira.

Azpierenmu horren azalera osoa 154.300 m²-koa da, horietatik 76.714 m² Ibarra udalerriri dagozkio eta gainerako 77.586 m² Tolosa udalerriri.



- Industrialdearen egungo garapenarekin Tolosako eta Ibarako udalei lagatako eremuetan hiriarteko parkea izango den berdegune bat egingo da; eremu gehiago ere lagako dira aztergai den hirigintza-planeamendua garatu ahala. Berdegune horren gutxi gorabeherako azalera 5,0 Ha-koa izango da.
- Apatta erreka-stoaren ibilgua egokitu egingo da jatorrizko kokapenetik udalerrien mugan zehar, "18.1 (Tolosa) – Ibarako lursailak" azpierrekuaren mendebaldeko ertzertantz. Dokumentu honetako planoetan jasota dago AHTko materialak hartzeko egokitzapen-obrekin egindako ibilgu berriaren trazadura.
- Indarrean dagoen EAEko Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean eta Ingurumen Azterlan Estrategikoan ezarritako irizpideei jarraituz, proiektatutako eraikuntza berriak gutxienez 12 metro atzeratuko dira Apatta erreka-stoaren ibilgu berrietik. Era berean, urbanizazioa gutxienez 5 metro atzeratuko da ibilgu horretatik, Uraren Legean ezarritakoari jarraituz.
- Adierazitako azpierrekuan irabazi asmoa duen industriako hirigintza-eraikigarritasuna, egikaritzea aurreikusten dena, gehienez 62.410 m²-koa izango da sestra gainean, eta oinplanoko gehieneko okupazioa 41.050 m²-koa. Zuzkidura- eta/edo ekipamendu-erabilera pribatuetarako eraikigarritasuna ere sartuta dago eraikigarritasun horretan. Plan Berezi honetan aurreikusitako antolamenduaren arabera, eraikuntza-garapena berdintsu ezarriko da Ibarako udalerrian eta Tolosako udalerrian.
- Hiri Antolamenduko Plan Bereziak alorreko administrazioek ezarritako honako baldintzatzaileak hartzen ditu kontuan:
 - URA – Uraren Euskal Agentziak ibarbidearen hondoko drainaren behin betiko ezarpenari eta horren jabari publikoa mantentzeari buruz jarritako baldintzak kontuan hartuko dira, proiektio bertikalean eraiki ez dadin. Era berean, arauen aldaketaren ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko 2011ko iraileko behin betiko txostenean ezarritakoari jarraituko zaio.
 - Ibarako eta Tolosako udalek adierazitako honako alderdi hauek beteko dira:



- Apattako industrialdea eta Apatta kalea bidegorri baten eta oinezkoen bide baten bidez lotuko dira, eta Tolosako hilerriarako bidea ere egingo da.
- GI-2130A errepidetik iparraldeko azpierzura, hiriarteko parkea egingo den lekura, iristeko bidea egokituko da, parkera sartzeko eta parketik irteteko eta industrialdeko larrialdietarako irteera gisa erabili ahal izan dadin.
- Azpierzuraren iparraldean eta eremuaren barruan sartuta dauden lurzoruen urbanizazioa egokituko da.

1.4.- HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA IDAZTEAN KONTUAN HARTUTAKO INGURUMEN-IRIZPIDEAK

"18.1 (Tolosa) – Ibarako lursailak" Azpierzuraren Hiri Antolamenduko Plan Berezia egitean hainbat ingurumen-irizpide izan dira kontuan eta ezarri dira. Irizpide horiek bat datoz Apattaerreak Eskualdeko Industrialdearen 2. fasea eta zabalkuntza garatzeko Ibarako Arau Subsidiarioen Lehenengo Aldaketaren ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko behin betiko txostenean jasotakoekin (Txostena Foru Aldundiko Ingurumen eta Lurralde Antolaketa Sailak egin zuen 2011ko irailean), bai eta Plan Berezi hau egin aurretik idatzitako Ingurumen Azterlan Estrategikoaren irismeneko dokumentuan (Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzara 2018ko apirilean bidalia) jasotakoekin ere.

Honako hauek dira Hiri Antolamenduko Plan Berezi hau egitean ezarri eta jaso diren ingurumen-irizpideak:

1.- Jasangarritasun-irizpideak

- Lurzoruen erabilera arrazionala, eta jada artifizializatuta dauden lurzoruen erabilera lehenestea.
- Irisgarritasuna eta mugikortasuna sustatzea, hiri-egitura trinkoak sortuta.
- Lurzoruen zigitatzea murriztea erabilera-teknika jasangarrien bidez.
- Baliabide naturalen erabilera jasangarria sustatzea.
- Habitata eta espezieak zaintzea eta hobetzea.
- Kultura ondarea eta paisaia kontserbatzea eta hobetzea.
- Energiaren aurrezpena eta energia berriztagarrien erabilera sustatzea.
- Aire garbia bermatzea eta zarata eta argi-kutsadura murriztea.
- Klima-aldaketarekiko kalteberatasunaren murrizketa bultzatzea.
- Arrisku naturalak gutxitzea.



- 2.- Ura:
 - Apattako ibarbideko ibilgu berriaren ingurumen-alderdiak hobetzea.
 - Ibarbideko ibilgu zaharretik hondoko drain bat egikaritzea, behar bezala erregularizatuta, kontuan hartuta jabari publikoa mantenduko duen trazadura berri horren proiektio bertikalean ezingo dela eraiki. Obra hori 2011n egin zen, AHTko lur-mugimenduetako soberako materiala hartzeko ibarbidea egokitzeko obrak egin zirenean.
- 3.- Mugikortasuna.
 - Apattaerreka Industrialdearen Mugikortasun Jasangarriaren Plana egiteko premia.
- 4.- Zarata eta bestelako eragozpenak
 - Ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko ebaluazio bateratuaren azterlana idaztean egindako soinu-neurketez gainera, industrialdearen lehenengo fasearen urbanizazio-proiektuan ingurumena zaintzeko egin zen programaren baitan egindako jarraipenaren emaitzei buruzko informazioa ere baliatzea.
- 5.- Ikuskapen-programa
 - Ustiapen-faserako kontrolak zehatzak izango dira, eta, horrez gainera, aurreikusi ez diren eta instalatutako jardueren funtzionamenduaren ondorioz egon litezkeen ingurumen-arazoak (zaratak, usaina, hondakinen kontrolik gabeko isurketak, etab.) hauteman ahal izateko kontrolak sartu behar dira.



2.- HIRIGINTZAKO INFORMAZIOA

2.1.- LURRALDEAREN MUGAKETA ETA EZAUGARRIAK

"18.1 (Tolosa) – Ibarra lursailak" Azpierenua eta, ondorioz, Apattaerreaka Eskualdeko Industrialdearen zabalkuntza-eremua Ibarra hegoaldean eta Ibarra eta Tolosako udalerrien artean dago, eta udalerrien muga den ibarbideko betelanarekin mendebalderantz zabalduko da egungo Apattaerreaka industrialdea. Egungo Apattaerreaka Industrialdetik iritsiko da bertara, irteera zuzena izango du GI-2130-A errepidera, baina larrialdietarako eta hiriarteko parkera iristeko bakarrik erabili ahal izango da.

Honela mugatuta dago: ekialdetik egungo Apattaerreaka Industrialdea du, iparraldetik GI-2130-A errepidea, hegoaldean egungo Apattaerreaka Industrialdea eta mendebaldetik Apattako ibarbideko isurketa-ibilgu berria, San Blas auzorako bidea eta San Blas zabortege zaharra, guztiak Tolosakoak.

"18.1 – Ibarra lursailak" Azpierenuaren azalera osoa 154.300 m²-koa da, laukizuzen forma irregularra du, oinplanoa 550 metro da luze eta 280 metro inguru zabal. Planteatutako hiriarteko parkearen hedadura osoa kontuan hartuta, hirigintza-jarduketarako eremua 170.877 m²-koa da.

Eremua ibarbide batean dago, une hauetan % 80 inguru dago beteta AHTko lur-mugimenduetako materialekin, eta 145 eta 120 koten artean dauden azalera mailakatuak eta nahiko horizontalak daude eraturak, beraz. Behealdean, hiriarteko parkea egitea aurreikusita dagoen lekuan, egungo kotak 115 eta 90 artean daude.

Sektorea mendebaldetik ibarbidearen kanpoko desbiderapenak zeharkatzen du, eta 0,95 km²-ko isurialde-arroa du erreka-ibilgu artifiziala husten den puntuan.

2.2.- DAUDEN AZPIEGITUREN EGUNGO EGOERA

Industrialde berria garatzeko "18.1 (Tolosa) – Ibarra lursailak" Azpierenuak hartzen duen lurraldearen zati batek landa-erabilera du eta inguruan hainbat pista ditu, eta beste zati batek industria-erabilera, gaur egun jada eraikita dagoen industrialde-zatiaren ikuspegitik.

Industrialdea presio handiko gas-hodi batek zeharkatzen du, eta ezkerrean eta eskuinaldean, perimetroan, bi saneamendu-kolektore nagusi daude. Halaber, eta gasbidearen ia paraleloan, aireko erdi-tentsioko linea dago (30 kv), eta horren azpian ezin da eraiki,



indarrean dagoen araudiari jarraituz. Era berean, Ibiurko urtegitik Ibarrara ura hornitzeko hodia ere aipatu behar da, jatorrizko trazaduratik ibarbideko egokitzapen-lanekin desbideratu zena, AHTko lur-mugimenduetako materialekin egitekoak ziren betelanelan eta aurrera begira gauzatuko zen industria-garapenean eraginik izan ez zezan.

Kanpoko mugetan daude Apattaerreka Industrialdeari dagozkion ur, telefono, gas, eta behe eta erdi tentsioko linea elektrikoen azpiegiturak. Azpiegitura horiek bere garaian kalkulatu ziren Plan Berezi honi jarraituz egingo den industrialdearen zabalkuntza kontuan izanda.

2.3.- HIRIGINTZA-PLANGINTZA OROKORRA

Aurrean adierazi den bezala, "18.1 (Tolosa) – Ibarako lursailak" Azpieroemua eta, ondorioz, Apattaerreka Eskualdeko Industrialdearen zabalkuntza-eremua Ibarra eta Tolosa artean dago, eta bi udalerrietako Hirigintza Plangintza Orokorra ezarri behar da, beraz.

Tolosa udalerriri dagokion zatia 2009an onartu zen eta indarrean dagoen Plan Orokorreko "18-Apatta Erreka" Hirigintza Esparruaren fitxan dago zehaztuta. Plan Bereziari buruz zehatz-mehatz honako hau adierazten da bertan:

"18.1 (Tolosa) – Ibarako lurrak" azpiesparruaren osotasunerako Hiri Antolamenduko Plan Berezia lantzea eta onartzea, azpiesparru horren antolamendu xehatua zehazteko, betiere azpiesparru horretaz harantzago ere hedatzearen kalterik gabe.

Plan honek udalaz gandi duen eragina dela eta, eta horren mende dagoen azpiesparruan aurreikusten den industria-garapena bera kontuan izanik, Ibarako eta Tolosako Udalerriek adosten dituzten irizpideei jarraitu beharko zaie Plana lantzean, bideratzean eta onartzean – xede horrekin adosten dituzten irizpide horiek bat etorriko dira indarrean dagoen legerian ezarritakoarekin–.

Bestalde, gainerako hirigintza-proiektuak (beharrezkoak diren hirigintza gauzatzeko proiektuak –urbanizatzeko jardunaren programak, urbanizazio-proiektuak, etab.–) eta azpiesparruan sustatu beharreko eraikuntza-proiektuak lantzeko eta bideratzeko ondorioetarako, eta urbanizazio-obrak gauzatzeko, eraikuntza-lizentziak emateko eta urbanizazioa mantentzeko ondorioetarako, besteak beste, bi udal horiek adosten dituzten irizpideen arabera jardun beharko da."



Ibarrako Plangintza Orokorrari dagokionez, berriz, Apattaerreak Eskualdeko Industrialdearen 2. fasea eta zabalkuntza garatzeko Ibarrako Arau Subsidiarioen bigarren Aldaketa 2017an onartu zen, eta aldaketa horretan honako hau jartzen du hitzez hitz:

"18.1 (Tolosa) - Ibarrako lurra' azpiesparruaren hiri-antolamendua gauzatzeko baldintzak bertan sustatu beharreko Hiri Antolamenduko Plan Berezian ezarritakoak izango dira, baita xede horrekin sustatu beharreko proiektuetan ezarritakoak ere (Urbanizatzeko Jardun Programa, Urbanizazio Proiektua, etab.).

Testuinguru horretan, eraginpean dauden Udalek adosten dituztenak izango dira urbanizazioa gauzatzeko, ordaintzeko eta mantentzeko baldintzak, hirigintza-eraikigarritasunaren banaketa, eraikuntza-lizentzien emakida, eta abar."



3.- PROPOSAMENAREN DESKRIBAPEN OROKORRA ETA HARTUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

3.1.- PROPOSAMENAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Ibarrako Arau Subsidiarioen Aldaketan eta Tolosako HAPOn aurreikusitako "18.1 (Tolosa) – Ibarrako lursailak" Azpieroemuan Apattaerreak eskualdeko industrialdearen 2. fasea garatzea aurreikusten da.

Azpieroemua 154.300 m²-ko azalera du guztira, Tolosako eta Ibarrako udal-barrutietan dago, eta 76.714 m² Ibarrakoak dira eta 77.586 m² Tolosakoak.

Apattako ibarbidearen hondoan dagoen azpieroemua hirigintza-garapenerako, ibarbidea bete behar izan da alde aurretik lurra kanpotik ekarrita; lurrik gehiena AHTko tunelen lur-erazketetatik ekarri da. Betelana egiteko behar ziren 1.030.000 m³-tik 950.000 m² ekarri dira dagoeneko. Gainera, ibarbidea alde aurretik egokitzeko hainbat obra egin behar izan dira, hala nola, erreka toaren bidearen desbiderapen perimetrala, ibarbidearen hondoan drain bat eta galeria bisitagarri bat egiteko obrak, Ibiurko urtegitik Ibarrara ura hornitzeko hodiaren desbiderapena, hiri-hondakin solidoen antzinako San Blas zabortegiko lixibiatuen kolektorearena, eta San Blas bidearen aldaketa txikia, Apattako ibarbidetik.

Apattako ibarbidea bete ondoren, neurri batean bada ere, egungo eskualdeko industrialdearen 2. fasearen urbanizazioari ekin ahal izango zaio.

Industrialdea zabaltzeko, plataforma batzuk zapalda moduan antolatuko dira beherantz, +141, +134,5 eta +126 sestetaraino, gehienez % 6ko malda duen erdiko zerbitzu-bide batekin. Bertan, plataformetarako sarbideak antolatuko dira, eta, azpian, ibarbidearen hondoko draina eta hari lotutako galeria, eta zerbitzu-kanalizazioen oinarri izango dira.

Zerbitzu-bideak nahiko antzekoak diren bi erditan banatuko du gutxi gorabehera azpieroemua. Goiko aldean industria-lurzati ertainak egongo dira. Erdiko zabalgunek, hasiera batean, tipologia bikoitza onartuko du. Horrela, "industrialde" motako eraikin-garapena aurreikusten da, enpresa txikientzako modulu atxikiekin. Plataformen arteko jauzietara egokituz, bi solairuko bi eraikuntza-bloke sortuko dira, eta bi solairuek izango dute sarbide zuzena beheko eta goiko plataformetatik. Bigarren tipologiaren bidez tamaina ertaineko enpresen premiei erantzungo zaie.




Hirugarren zabalgunea, behe-behekoa, hasiera batean enpresa handiagoak ezartzeko izango da. Zabalgunea horren eraikuntza-antolamendua egitean kontuan izan dira azpierzemua zeharkatzen duten eta egungo trazaduren arabera finkatuta dauden lurpeko gasbidea eta airetik doan 30 Kv-eko linea elektrikoa.

Antolamenduaren behealdean hiriarteko parke bat egitea aurreikusten da, eta industrialdea Apatta auzoarekin (Tolosa eta Ibarrekin) lotzeko eta oinezkoentzat eta bidegorri bidez industrialdearekiko eta Tolosako San Blas auzoarekiko konexioa egiteko aukera emango du. Parke horretan egoteko eta jolasteko eremu bat egitea aurreikusten da, egungo Apattaerreaka Industrialdearen garapenarekin eta zabalkuntza honekin sortutako iragazgaiztasunaren ondoriozko ur-goraldiak laminatzeko dagoen ekaitz-tangak sortzen duen ur-euspina aprobetxatuz. Piknikgune bat ere aurreikusita dago, eta ostalaritza-erabilerarako ekipamendu publiko bat izango da bertan aisiarako guneari zerbitzua emateko, bai eta aparkaleku atxiki bat eta Apatta osorako larrialdietarako bide moduan erabiltzeko sarbidea aprobetxatuz GI-2130-A errepidetik sarbidea ere.

3.2.- KONTUAN HARTUTAKO ANTOLAMENDU-ALTERNATIBA EZBERDINAK

"18.1 (Tolosa) – Ibarreko lursailak" Azpierzemua eta, ondorioz, Apattaerreaka Eskualdeko Industrialdearen zabalkuntza planifikatzeko prozesuan eremua antolatzeko alternatiba ezberdinak hartu dira kontuan eta ebalatu dira, eta abiapuntua beti izan da URA – Uraren Euskal Agentziak egindako txosteneko jarraibideak betetzea, bertan adierazten baita ibarbidean hondoko drain bat egin beharko dela eta proiektio bertikalean eraikigarria izango ez den lursail publikoa izango duela.

Hasiera batean aztertu zen industrialde berrirako sestren artean 7 metroko aldea izango zuten eta zapalda moduan beherantz antolatuko ziren plataformak eratzea, batez ere industria-lurzoruak izango zirenak, eta horrek eskatzen zuen 1.400.000 m³ material ekarri beharko zela betelana egiteko. Lehenengo alternatiba horretan lurzatiei banaketan efikazia gorenari lortu nahi izan zen, udal-barrutietan horiek zuten kokapena kontuan izan gabe.




Bigarren alternatiba aurrekoan oinarritzen da eta udalek eskatutakoari erantzuten dio, hau da, lurzati tipologia antzekoa izatea udal-barruti bakoitzean, eta horrek esan nahi zuen bide nagusiaren bi aldeetan tipologiak antzekoak izatea eta bide nagusi hori GI-2130A errepiderako erdi-lotunarekin osatzea, industriadetik zuzenean Tolosa aldera atera ahal izateko.

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224

1. dokumentua: MEMORIA

SALABERRIA INGENIERITZA SL, MARIA LASA, TOMAS MINGOT



Planteatutako hirugarren alternatiba gero egindako hausnarketa-prozesu baten ondorioz sortu zen, batez ere bi datu nagusi kontuan hartuta. Lehenengo datua zen ibarbidea eskualdeko, eta, batez ere, AHTko obretako, lur-mugimenduetako 1.400.000 m³ materialekin bete ahal izateko aukera erreala murrizten joan zela lan horien denbora-aldagaiak hobeto ezagutu ahala; eta, beste alde batetik, ikusi zen GI-2130A errepedierako erdi-lotunearen kostua oso handia zela horrek ekarriko zuen errentagarritasun soziala eta bide-hobekuntza kontuan hartuta, eta Foru Aldundiko Errepideak Planifikatzeko Zerbitzuak berak jartzen zuen zalantzan errentagarritasun hori. Eztabaida horren emaitza izan zen hirugarren alternatiba, eta, gainera, ekaitz-tangaren inguruak ingurumenaren ikuspegitik egokitzeko aukera ere ematen du, hor sortzen den berdegunea hiriarteko parke bihurtuz eta, era horretara, Ibarra Arau Subsidiarioen Aldaketan ezarritako baldintzak betez.

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224

1. dokumentua: MEMORIA

SALABERRIA INGENIERITZA SL, MARIA LASA, TOMAS MINGOT



Azkenik, eta aurreko alternatibatik abiatuta, hainbat doikuntza eta aldaketa egin dira. Lehenik eta behin, eta bi udalek, Tolosak eta Ibarrak, adostuta, udal bakoitzak esparruari egiten dion azalera-ekarpenaren arabera industria-lurzoruaren banaketa proportzionala proposatu zen. Horrez gainera, 3. alternatibako M eta L lurzatiak lurzati bakarrean biltzea eta R lurzati handitzea ere proposatu zen, azken honetarako sarbidea, oinezkoen eta bizikleten bidea San Blas bidearekin komunikatzekoa izan ezik, pribatua izan dadin.

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224



3.3.- ZONAKATZE XEHATUA ETA EZAUGARRIEN KOADROA

Antolamendua zehaztuko da lurzati eraikigarriak definitzen direnean eta espazio libreak eta zuzkidurakoak konfiguratzeko direnean, jarraian adierazitako zonakatzeko xehatuari jarraituz (hurrengo orrian dagoen taulan adierazita dago).

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224



"18.1 (TOLOSA) – IBARRAKO LURSAILAK" AZPIEREMUAREN ANTOLAMENDU XEHATUARI BURUZKO BEHIN BETIKO DATUAK		AZALERA GARBIA (m ²)
INDUSTRIA ETA MERKATARITZA ERABILERA LURZATIAK		
L LURZATIA	INDUSTRIA-ERABILERA	15,567
M LURZATIA	INDUSTRIA-ERABILERA	7,930
N LURZATIA	INDUSTRIA-ERABILERA	3,548
Ñ LURZATIA	INDUSTRIA-ERABILERA	2,988
P LURZATIA	INDUSTRIA-ERABILERA	13,881
Q LURZATIA	INDUSTRIA-ERABILERA	6,945
R LURZATIA	INDUSTRIA-ERABILERA	3,433
S LURZATIA	INDUSTRIA-ERABILERA	8,626
GUZTIRA		62,918
EREMUKO ESPAZIO LIBREEN ETA BERDEGUNEEN SISTEMA		
EREMU PRIBATUAK		12,305
EREMU PUBLIKOAK		55,977
EKIPAMENDU PUBLIKOAK		424
GUZTIRA		68,706
EREMUKO BIDE-SISTEMA: BIDEAK, ESPALOIAK ETA APARKALEKUAK		18,584
IBAI-IBILGUA		4,092
GUZTIRA		154,300

Behin antolamenduan jasotako lurzatiak konfiguratu ondoren, lurzati bakoitzari erabiltzeko parametroak, eraikigarritasuna, eraikitze baldintzak eta zatitzeak izendatuko zaizkio. Ondorengo ezaugarrien taulan daude laburbilduta lurzati eraikigarri bakoitzaren parametro nagusi horiek.



EZAUGARRI ERAIKIGARRIEN KOADROA

APATTAERREKA ESKUALDEKO INDUSTRIALDEAREN "18.1 (TOLOSA) – IBARRAKO LURSAILAK" AZPIEREMUA

LURZATIAK	ERABILERA	SESTRA	A.GORDINA (m ²)	A.GARBIA (m ²)	GEHIENENKO ERAIKUNTZA-OKUPAZIOA (m ²) Oinplanoan gehienaz eraiki daitekeen azalera	ERAIKUNTZA, SARBIDEA DUEN GOIKO SOLAIRUAN (m ²) Gehieneko azalera	ERAIKIGARRITASUNA (m ² s.e.) Solaru eraikigarriaren gehieneko azalera	SESTRAPEAN EGIKARITZEKO GEHIENENKO AZALERA (m ²)	GEHIENENKO ERAIKUNTZA PROFILA
IBARRA									
L	Industria	+127	21,547	15,567	9,924	1,35	13,398	9,924	BS
M	Industria	+135	8,730	7,930	5,056	1,35	6,825	5,056	BS
N	Industria	+135 / +142	4,160	3,548	2,653	1,35	7,164	2,653	BS + GS
N	Industria	+142,5	3,978	2,988	2,541	1,35	3,430	2,541	BS
GUZTIRA			38,415	30,032	20,174		30,817	20,174	
TOLOSA									
P	Industria	+125	16,273	13,881	8,692	1,35	11,734	8,692	BS
Q	Industria	+134,5	7,233	6,945	4,384	1,35	5,919	4,384	BS
R	Industria	+134,5 / + 141,5	3,685	3,433	2,527	1,35	6,823	2,527	BS + GS
S	Industria	+141,5	9,618	8,626	5,271	1,35	7,116	5,271	BS
GUZTIRA			36,808	32,886	20,875		31,593	20,875	
GUZTIRA			75,223	62,918	41,050		62,410	41,050	

1. dokumentua: MEMORIA

SALABERRIA INGENIERITZA SL, MARIA LASA, TOMAS MINGOT



3.4.- PLANTEATUTAKO IRTENBIDEAREN JUSTIFIKAZIOA

- Plan Bereziaren antolamendua oinarritzen eta justifikatzen da Tolosaldean jarduera ekonomikoetarako dagoen lurzoru-eskaera eta Apattaerrekako eremuak, behin egungo industrialdea osatzen denean, industria-ezarpen berriak hartzeko eskaintzen duen aukera egokia bateratzeko Ibarako eta Tolosako udalek eta eskualdeko Tailsa sozietateak duten interesean.
- Antolamendu berriak ingurumenaren eta paisaiaren aldeko sentzibilitate nabarmena du, eta gaur egun balio natural mugatuak dituen lursaila, lehenbizi, trenbide-sare berriko obretan sortutako soberako lurrak pilatzeko eta, era horretara, lurraldean barrena zabaltzea eragozteko hondakin geldoen biltegi bihurtu zen eta, ondoren, antolatutako plataforma berriak hirigintzaren ikuspegitik industrialde gisa aprobetxatzeko eremua. Prozesu horretan guztian garapen jasangarriarekin lotutako irizpideak jarraitu dira, aukera, eskala-ekonomia eta lurzoru-baliabideen optimizazio moduan.
- Plan Bereziaren planteatutako antolamendua Ibarako eta Tolosako plangintza orokorretako dokumentuetan jasotako araudi partikularretara eta mugaketara egokitzen da; zehazki, behin betiko oraintsu onartu den "Apattaerrekako Eskualdeko Industrialdearen 2. fasea garatzeko Ibarako Arau Subsidiarioen Bigarren Aldaketa" espedienteko arau partikularrera eta behin betiko onartuta dagoen Tolosako HAPOko "18 Apattaerrekako" hirigintza-esparrurako arau partikularrera.
- Honakoak dira bete diren parametro adierazgarrienak:
 - Plan Bereziaren antolatu den eta irabazi asmoa duen eraikigarritasuna 62.410 m²-koa da, baimendutako solairu eraikigarria (63.050 m²) baino apur bat txikiagoa.
 - Plan Bereziaren antolatutako eraikuntza-okupazioa 41.050 m²-koa da, eta ez da, beraz, baimendutako gehienekoa (48.500 m²) gainditzen.
 - Plan Bereziaren antolamenduan errespetatu egiten da eraikina erreka-eremuaren ibilgu perimetral berritik gutxienez 12 metro atzeratzea. Era berean, urbanizazioa (bideak edo industria-lurzatien urbanizazio-muga) gutxienez 7,50 atzeratuko da erreka-eremuaren ibilgutik.



- Plan Berezian industrialdea zabaltzeko planteatzen diren barruko bideen antolamenduak eta lurzatieen konfigurazioak bermatzen dute, alde batetik, funtsezko azpiegitura-oinarri argia izatea eta, bestetik, azpiegitura-oinarri hori behar bezain malgua izatea merkatuaren eskaeraren arabera azkenean egiten den lurzatieketa xehatura egokitzeko.
- Planteatutako antolamendua hainbat plataformak osatzen dute, eta horrekin bermatzen da lurraldea eta paisaia errespetatuz integratuko dela inguruan industrialdea.
- Planteatutako antolamenduarekin arazorik gabe ematen zaie konponbidea azpiegitura-zerbitzuen harguneei, eta ez du eragin adierazgarririk ez egungo sareetan ez inguruko hirigintza-garapenetan.
- Planteatutako antolamenduarekin URA - Uraren Euskal Agentziaren txostenean eskatutakoa ere betetzen da, hau da, ibarraren hondoan drain bat egitea errekaostoen bide naturaletik hurbil eta erregularizatuta, eta bere proiektio bertikalak jabari publikoa mantentzea eta, ondorioz, eraikuntza-erabilerarik ez izatea.
- Era berean, proposatutako antolamenduak betetzen du Kantauri Ekialdeko Demarkazioaren Plan Hidrologikoko Araudia. 2015-2012 berrikuspeneko 44. artikulua: *"Urbanizatu beharreko eremu berriak eta komunikabideak drainatzea"*; izan ere, egungo ekaitz-tanga bere garaian eraiki zenean kontuan hartu zen egungo Apattaerrika industrialdea garatzeko aurreikuspena eta Plan Berezi honetan proposatzen den zabalkuntza.
- Errekastoaren ibilguan kutsadura eragozteko, proposatzen da, saneamendurako derrigorrezkoa den bereizketa-sistemaz gainera, Plan Berezi honek arautzen duen eremuko euri-uren isurketak tratatzeko hidrozikloien bidezko sistema, urteko eurien % 90 tratatu ahal izateko, eta, era horretara, solidoen bereizketaren errendimendua % 80ra iristeko.



4.- PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN EZAUGARRIAK

4.1- URBANIZAZIOAN AURREIKUSITAKO OBRAK

HAPBn Apattaerreka Industrialdea zabaltzeko egin behar diren obra guztiak aurreikusten dira, hainbat plataforma berdintzearen bidez eta ibarbidea erabat betetzeko lanen bidez, Plan Bereziaren aurreikusitako antolamenduari jarraituz. Industrialde berriak Apattaerrekaren jada eraikita dagoen eremutik izango du sarbidea. Alde horretatik, eta aurreko antolamenduetan GI-2130A errepiderako erdi-lotune bat aurreikusita zegoenez, eraikitako Apatta Industrialdeko bide-sarean eta industrialde horretara sartzeko biribilgunean trafiko-arazorik ez sortzearen, bilera egin zen Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Zuzendaritzako teknikariek, eta ez zuten planteatu GI-2130A errepidetik Apattako Industrialdera sartzeko biribilgunean arazorik sortuko zenik industria-garapen berriak erantsiko duen trafikoaren ondorioz.

Antolamendua osatzeko neurri eta ezaugarri ezberdinetako plataforma horizontalak sortuko dira, eta industria-lurzatiak eta ekonomia-jarduerak hartzeko eta industrialdearen zuzkidura-ekipamenduak ezartzeko izango dira. Betelanaren behealdean, hau da, eremuaren iparraldean hiriarteko parke bat egingo da, egungo irisgarritasun-araudiak bete ahal izateko bide eta guzti.

Industrialde osoan berdindutako plataformen azalera osoa (azalera garbia), jarduera ekonomiko ezberdinetarako erabiliko dena, 62.918 m²-koa da.

Industrialdean aurreikusitako barruko kaleak industria-lurzatiak hartuko dituzten plataformen kanpoko mugen artean neurtuko dira, eta zabalera ezberdineko sekzioak izango dituzte kasu bakoitzaren egoeren arabera. Kale bakoitzean ibilgailuentzako galtzada nagusia, aparkaleku publikoetarako zolatutako zerrendak eta/edo lurzatiak sartzeko atalurre jarraituak, lurpean industrialdeko zerbitzu-sare nagusi guztiak hartzea ahalbidetuko duten sekzioak eta lurzati bakoitzerako beharrezko hargune-elementuak ezarriko dira. Bide nagusiak, gainera, adierazitako guztiaz gainera, espaloiak izango ditu.

Laburbilduta, Plan Berezi honen antolamenduan aurreikusitako obra nagusiak dira, alde batetik, industrialde barruko urbanizazio-lanak, hau da, sarbide nagusia eraikitzea eta plataformak berdintzea, eta, horretarako, aurretik betelana, ezinbestekoak diren eustormak eta drainatze-obrak gauzatu beharko dira; eta, ondoren, barruko azpiegitura-sareak eraikiko dira, bide-sarea zolatuko da, behar izango diren plataforma mailakatuak konfiguratzeko



gainerako hormak egingo dira eta, azkenik, erremate-lanak eta ingurumena leheneratzekoak egingo dira. Gainera, eremuaren iparraldean hiriarteko parkea egiteko beharrezko obrak ere egin beharko dira, eta horrekin lotuta Apatta auzotik parkera arteko irisgarritasuna hobetu beharko da, bereziki oinezkoena.

Alde horretatik, HAPB honetan mugikortasun jasangarriaren alde egindako apustuak dira hiriarteko parkearen eta Apatta Erreka auzoan urbanizatzekoa den eremuaren mugaren artean oinezkoen bide bat egitea eta auzo horretatik eta San Blas bidearen bitartez industrialdera sartuko diren oinezkoen bideen ondoan, zati batzuetan, joango den bizikleta-bidea, ibilgu berria bizikletentzako pasabide baten bidez zeharkatuko duena eta garapen berrian planteatutako bidegorriarekin eta industrialdeko bideekin lotuko dena. Horrez gainera, bide publikoetan nahiz lurzati pribatuetan bizikletentzako U formako aparkalekuak hornituko dira, araudiari jarraituz.

Horrez gainera, komenigarria izango da pixkana eta tartekatuta eraikitzea bi altuera eta sarbidea bi altueratan izango duten eraikuntzak hartuko dituzten plataforma mailakatuak eratzeko aurreikusitako hormak.

4.2.- LUR-MUGIMENDUA ETA FABRIKA-OBRAK

Lur-erazketetako ezpondak orokorrean 2H:1V-ko inklinazioarekin diseinatu dira, egonkortasun-baldintzak ziurtatzeko. Lubetetako ezpondak ere, orokorrean, 2H:1V-ko inklinazioarekin konfiguratu dira.

Laburbilduz, lur-mugimenduaren eragiketa globala egiteko oinarrizko irizpide gisa planteatu da lur-erazketen eta betelaren arteko konpentsazioa, eta AHTko obretako soberako materialak eta eskualdean egiten diren gainerako lur-mugimenduetakoak hartuko dira eta hainbat lekutan harrobiko materiala botako da zabalgunegoki eta hobetua eratu ahal izateko.

Industrialdean aurreikusitako zabalgunek konfiguratzeko honako fabrika-obrak programatu dira:

- 7 metroko altuerako eustormak N eta R lurzatieko zabalgunek mailakatzeko. Lurzati horietan bi altueratan eraikitzea dago programatuta, eta horma horiek egingo den eraikinaren beheko solairu gisa integratuta geratzea aurreikusten da.



- Gehienez 5 metroko altuerako eustormak jada eraikita dagoen industrialdea eta HAPB honetan aurreikusitako zabalkuntza lotzen dituen lursailaren maldari eusteko. Horma hori Ñ lurzatian egongo da.
- Eremu ezberdinetan eraturako eustorma txikiagoak urbanizazioaren mailakatzeko puntualei konponbidea emateko.

Ingurumena leheneratzeko aurreikusitako neurriei dagokienez, esku-hartzea, orokorrean, egokia da ingurumenean duen afekzioaren ikuspegitik, garrantziko basoberritze-neurriak aurreikusten baitira eta esku-hartze osoa elementu topografiko nagusiekiko hondoratuta eta beherago baitago, eta inguruan, beraz, ez da eragin adierazgarririk izango paisaiaren ikuspegitik.

Gainera, eta Ibarako eta Tolosako udalekin adostutakoari jarraituz, aurkeztutako antolamenduan planteatzen da ekaitz-tanga dagoen lekuan hiriarteko parke bat sortzea, tanga horren funtzionamenduaren ondorioz urak har dezakeen lekutik kanpora, eta bertan jolaserako eta egoteko gune bat izango da, bai eta egungo irisgarritasun-arauak betetzen dituzten bideen bitartez Apatta auzoarekin lotuko den aparkalekuen eta zerbitzuen gune bat ere.

Gainerako berdeguneetan, eta esku-hartzeak paisaian ahalik eta eraginik txikiena izan dezan, industrialdearen kanpoko perimetro osoan malda gutxiko mazela berdeak taxutuko dira, eta landare-lurra berrezarriko da eta zuhaitz-eremu berriak ezarriko dira. Era berean, aurreikusten da babes-berdeguneak sortzea lurzatietako plataforma mailakatuaren artean eraturako ezpondetan.

4.3.- SARBIDEAK, BARRUKO BIDE-SAREA, APARKALEKUAK ETA OINEZKOEN BIDEAK

Honakoak dira Apattaerrekako hirigintza-garapenerako aurreikusitako bideak:

- 1. bidea

Bide hori industrialdearen zabalkuntzaren ardatz nagusia izango da, eta jada eraikita dagoen esparruarekin lotzeko bide bakarra. Bideak jada eraikita dagoen esparruaren kotarekiko % 6ko malda izango du beherantz. Egungo hiri-eremuarekin lotuko duen bihurtze ireki batekin hasiko da eta zuzen batekin jarraituz biribilgunean amaituko da, bertan azkeneko lurzatietako sarbideak lotuko dira eta 180º-ko biraketarako



biribilgunea planteatuko da industrialde berriaren beheko aldean. Jada eraikita dagoen esparruarekiko konexioa 146 kotan egongo da, eta biribilgunekoa 126,6 kotan; bideak guztira 400 m neurtuko ditu.

Biribilgunetik 140 metrora bi kale perpendikular irtengo dira bide nagusiaren alde banatara. Egoera horixe bera sortuko da bihurgunearen eta zuzenaren arteko trantsizioan, aurreko puntutik 120 metrora.

Bideak 3,7 m-ko bi errei izango ditu zati zuzenean, 60 cm-ko zabalerako arekak alde banatan eta 2 m-ko zabalera izango duten ilarako aparkalekuak, horiek ere bidearen bi aldeetan. Gainera, 2,10 metroko zabalerako espaloia izango du bidearen bi aldeetan.

Bihurgunearen eremuan, aldiz, kendu egingo da aparkalekuetarako gunea, eta arekek 60 cm-ko zabalera izan ordez 30 cm-koa izango dute, eta, gainerakoa, zati zuzenean bezala, zuzkiduretarako geratuko da.

- 2. bidea

Bide nagusiarekiko paralelo dagoen kalea da, hasieran bide nagusiarekiko perpendikular egongo da, eta metro gutxi batzuren ondoren laurogeita hamar graduko bira eman eta paralelo jarriko da. Sestrarekiko horizontalean egongo da, 134 inguruan.

Bide honen sekzioak bi errei izango ditu, bakoitzak 60 cm-ko arekak izango ditu eta aparkalekuak eskuinaldean ilaran.

Kale horretatik sartuko da M lurzatira eta 3. bidera.

- 3. bidea

2. bidearen jarraipena dela esan daiteke, hari jarraituko baitio, baina harekiko eta bide nagusiarekiko perpendikularrean.

Kalea nahiko horizontala izango da, apur bat gorantz egingo badu ere, eta sekzioa 2. bidearen berdin-berdina. Irteerarik gabeko kalea izango da, eta bertatik sartuko da M lurzatiaren zati batera eta N lurzatiaren beheko solairura.



- 4. bidea

2. bidearen berdin-berdina da, baina bide nagusiarekiko simetrikoa, hau da, 2. bidea ezkerraldeetik paraleloa izango da eta beheko biribilgunetik jada eraikita dagoen goiko eremurantz joango da; 4. bide hau, berriz, eskuinaldean egongo da. Zeharretarako sekzioa berdin-berdina izango da, eta sestra 133 kotan izango du, gutxi gorabehera horizontala.

Bide honetatik sartuko da Q lurzatira eta 5. bidera.

- 5. bidea

3. bidearen berdin-berdina da, baina apur bat gorantz egin ordez beherantz egingo du, sestra 133.90 kotan hasiko da eta kalea moztuta 133an amaituko da.

Bide honetatik Q lurzatiaren zati batera eta R lurzatiaren beheko solairura sartuko da.

- 6. bidea

Bide nagusiarekiko perpendikularra da, apur bat gorantz egingo du 3. bidearen sekzio-eredu berarekin. N lurzatiaren goiko solairura eta Ñ lurzatira sartzeko bidea izango da.

- 7. bidea

6. bidearen berdin-berdina da, baina bide nagusiarekiko simetrikoa, eta beherantz egingo du. R lurzatiaren goiko solairura eta S lurzatira sartzeko bidea izango da.

- 8. bidea

6. bidearen antzeko kalea da, beheko biribilgunetik abiatuko da eta gorantz eginda M lurzatira iritsiko da. Bide honetan hainbat aparkaleku jarriko dira baterian, industrialderako nahiz hiriarteko parkerako izango direnak.



- 9. bidea

Bide hori ere beheko biribilgunetik abiatuko da, eta R lurzatiako ibilgailuen bidea izango da, eta bizikleta-bide baten bidez parkearen aldetik, pasabide baten bitartez, San Blas bidearekin lotu ahal izango da.

- Larrialdietarako bidea

Zuzenean GI-2130A errepidera irteteko egungo bidea mantenduko da, bere sestra hobetuko da beheko biribilgunetik ekipamendu-esparrura arte (piknikgunea), eta ekipamendu horretara iristeko bidea eta Apattaerrika industrialde osorako larrialdietarako irteera izango da.

- Hiriarteko parkeko bideak

Apatta auzoa ekaitz-urei eusteko urmaelaren goiko kotarekin lotzen duen bidea egokitzea proposatzen da, irisgarritasunari buruzko egungo araudia betez, bai eta bide hori hiriarteko parke berriko zabalgunearekin eta ekipamendurako lurzatiarekin lotzen den puntua ere.

- Aparkaleku publikoak eta pribatuak

Antolamenduan aparkatzeko 138 leku publiko aurreikusten dira. Aparkaleku horiek erabili ahal izango dira ibilgailuak edo bizikletak aparkatzeko. %90-a ibilgailuentzat izango dira eta beste %10-a bizikletentzako.

Bestalde, eta udalek eta TAILSak gomendatutako baldintzei jarraituz, arautu da lurzati pribatuetan hainbat aparkaleku sortu behar direla jarraian adierazitako koadroaren arabera.

LURZATIAK	GUTXIENEO APARKALEKU-KOPURUA LURZATI PRIBATUAN
IBARRA	
L	70
M	35
N	37
Ñ	18
GUZTIRA	160
TOLOSA	
P	61



Q	31
R	35
S	37
GUZTIRA	164
GUZTIRA	324

Era horretara, HAPB honetan aurreikusitako gutxieneko aparkaleku-kopurua, publikoak nahiz pribatuak zenbatuta, 462 da, hau da, eraikitzeoa den azaleraren 100 m² -ko aparkaleku bat.

4.4.- HARGUNEAK, KANPOKO AZPIEGITURAK ETA BARRUKO ZERBITZU-SAREAK

Industrialdetik kanpora dauden azpiegitura-harguneak eta barruko zerbitzu-sareak honela eratuko dira:

- Drainatze-sistema

Apattako ibarbideko drainatze-sistema jada egikarituta dago ibarbidea lurrez betetzeko egokitzapen-proiektuaren baitan, eta bertan ibarbidearen hondoko draina eta sekzio bisitagarria egin ziren batez ere egungo industrialdeko drainatze-urak jasotzeko.

Gainera, eginda dago ibarbidearen gainazaleko desbiderapena ere, eta egungo industrialdearen konfigurazioarekin ezarritako trazadura ezkerretik luzatzen da sahats-aldaxkez landareztatutako eta ekaitz-tangan amaitzen den azalera latzeko harribetabizkor batean amaitutako ibilgu bikoitz baten bidez.

Ekaitz-uren emaria erregulatzea beharrezkoa da Kantauri Isurialdeko Plan Hidrologikoaren egungo araudiari jarraituz, eta hori ere industrialdearen lehenengo fasetik dago eginda. Ekaitz-urei eusteko une hartan egindako urmaelak ziurtatzen du ur-goraldiak ibilgu naturalaren antzeko balioetara laminatuko direla, eta desagertu egiten da bai egungo industrialdeak bai dokumentu honetan planteatutako zabaltzeak zalantzarik gabe eragiten duten iragazgaitasun-eragina.

Ekaitz-uren urmael hori hornitzen da drainari lotutako galeriatik etengabe irteten den iturburuetako urarekin eta egungo Apattaerreka Industrialdeko euri-uren saneamendu-sistemak bildutako euri-urarekin eta HAPB honetan aurreikusitako zabalkuntzaren ondorioz euria egiten duenean urmaelera iritsiko denarekin.



- Euri-uren eta hondakin-uren saneamendua

Industrialde barruko saneamendua bereizketa-sistemaren bidez aurreikusi da, eta lurzatietan bereizita bilduko dira, beraz, euri-urak eta hondakin-urak. Honakoak dira bi sare horien konfigurazioaren eta trazaduraren ezaugarri nagusiak:

a) Euri-uren sarea

Euri-urak biltzeko kolektore-sistema bat proiektatu da bide berrien eta eremu librean azpitik, eta horien bidez ura mendebaldean dagoen errekastoraino eramango da.

Lurzati eraikigarri pribatuek euren kontura eraiki beharko dute euri-urak biltzeko barruko sarea, eta sare orokorrean horretarako aurreikusitako kutxatiletara bideratuko dute.

Planteatutako antolamenduan murriztu egin da isurguneen kopurua, eta bi izango dira. Proposatzen da isurgune bakoitzean euri-urek hidrozikloien bidezko alde aurreko tratamendu bat jasotzea, uretan esekita dauden solidoak eta flotatzaileak bereizteko, eta urteko eurien % 90 tratatuko dira.

b) Hondakin-uren sarea

Industrialdeko lurzatietako hondakin-urak biltzeko bereizketa-sare bat aurreikusten da, eta kolektore-sistema adarkatu baten bidez isurkinak esparruaren mendebaldetik pasatzen den egungo hondakin-uren kolektore nagusira arte bideratuko ditu.

Lurzati eraikigarri pribatuek euren kontura eraiki beharko dute hondakin-uren saneamendurako barruko sarea, eta kutxatila bisitagarrietara bideratuko dute sare nagusian horretarako aurreikusitako kutxatiletara bideratu aurretik. Sare orokor hori Adunako HUAN amaitzen da, eta gaur egun Apattako industrialdean sortzen diren hondakin-ur guztiak eta proposatzen den garapenarekin aurreikusten direnak Adunako HUAN araztuko dira, beraz.



- Ura hornitzeko eta banatzeko sarea

Behin garatzen denean, industrialde berriak izango duen ur-premia batez beste segundoko 3,77 litro ingurukoa izango da, eta parametro hori inolako arazorik gabe asumitu daiteke hornidura-sarearen egungo zerbitzu-ahalmenarekin.

Aurreikusitako banaketa-sarea industrialde berriaren hegoaldean hasiko da, egungo sarean egingo den 150 mm-ko diametroko lotune batekin. Hortik planteatzen da trazadura bide publikoetatik bideratzea industrialde barruko banaketa-sarea eratzeko, eta bertan egongo dira lurzatietarako harguneak eta suteetako ur-harguneak.

Ibarrako depositu berriaren kotaren eta Plan Berezi honek antolatzen duen urbanizazioaren kotaren artean dagoen aldea ikusita, sarean 5 atmosferakoa izango da gutxieneko presioa, eta horrekin industria-eraikinetako suteen aurkako egungo araudia bete ahal izango da.

Sarea lotunean amaituko da Apatta auzora jaisten den zerbitzu-pistan dagoen banaketa-lotune baten bidez, eta egungo industrialdeko sarearekin, beraz, sare formako ur-hornikuntza sortuko da.

- Argindarraren sarea

Industrialderako argindarraren hargunea enpresa hornitzailearen jarraibideak kontuan hartuta egingo da, 30 kv-eko linea berria jarriko da lehendik eraikita dagoen esparruan, Ebakilan enpresaren ondoan, dagoen transformadoretik.

Puntu horretatik lurpean eramango dira 30 kv-eko lineak lau eraldaketa-zentrotara eta lurzati handienetara.

Eraldaketa-zentroetatik lurpeko kanalizazioak ezarriko dira industrialdeko lurzatietara behe-tentsioko lineak eramateko.

- Telekomunikazio-sareak

Telekomunikazio-zerbitzua lurpeko sarean bidez antolatuko da, eta industrialdeko lurzati guztietarako harguneetarako erregistro-kutxatilak eta kanalizazioak egingo dira. Egungo sarearekin konexioak jada eraikitako esparruan egingo dira, eta bide nagusitik bideratu ondoren eraikiko den industrialde osoan banatuko da.



- Gasa banatzeko sarea

Programatu da gasa banatzeko industrialdeko barruko sarea jada eraikita dagoen eremutik abiatzea, eta sarea itxiko da banaketa berri hori eraikitako ENEtik irteten den egungo sarearekin lotuta. Kanalizazio nagusi horretatik hornituko da gasa eskatzen duten lurzatiak.

- Argiteria publikoaren sarea

Aurreikusitako argiteria publikoaren sistemak barne hartzen ditu industrialdeko bideetako argiak. LED argi-ilarak instalatuko dira 30/35 metroz behin jarriko diren 10 m-ko altzairu galbanizatuzko zutabeetan, era horretara, ahalik eta energia-efizientziarik handiena lortzeko. Hiriarteko parkearen esparruko oinezkoen bideetako argiak ere LED argiak izango dira, eta 20 metroz behin jarritako 5-6 metro inguruko aluminiozko zutabeetan instalatuko dira.

Argiak elikatze sarea lurpetik egingo da, eta fluxua murrizteko sistema zentralizatua izango duten kontrolerako eta maniobrarako hiru kaxa instalatzea aurreikusten da.

Argi-puntuen kokapena, argi-motak eta argi-puntuen altuera zehaztasunez ezarriko dira Urbanizazio Proiektuan. Alde horretatik, argi-kutsadura ahalik eta gehin murriztuko duten argiak aukeratu dira.

4.5.- IRISGARRITASUNA SUSTATZEA

Plan Berezi honetan planteatutako antolamenduan orokorrean betetzen dira: otsailaren 1eko VIV/561/2010 Ministro Aginduan, espazio publiko urbanizatueta sartzeko eta haiek erabiltzeko irisgarritasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko oinarriko baldintzen dokumentu teknikoak garatzen duenean, jasotako xedapenak; otsailaren 19ko 173/2010 Dekretua, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretu bidez onartutako Eraikuntzaren Kode Teknika, desgaitasunak dituzten pertsonen irisgarritasunari eta diskriminazio ezari dagokionez, aldatzen duena (2010/03/11ko BOE); eta Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen lege autonomikoa (20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna sustatzeko; eta 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-ingurune, espazio publiko, eraikuntza eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen).



Urbanizazio Proiektuan finkatuko da zehatzago bide-sarea eta oinezkoen bideak ezarritako legeriara egokitzeko modua.

4.6.- INGURUMENA LEHENERATZEA

4.6.1.- Irizpideak eta baldintzatzaileak

EKOS enpresak 2018ko ekainean idatzitako "Ingurumen Azterlan Estrategikoa" dokumentuan hasiera batean proposatzen diren neurriak kontuan izan behar dira plangintzaren fasean eta, ondorioz, HAPB honetan. Honakoak dira neurri horiek:

- Mugikortasuna: Langileentzat beharrezko zuzkidurak sortu behar dira mugikortasun-eskaerak hobetzeko. Alde horretatik, proposatzen da Apatta Erreka auzoan Tolosako eta Ibarako herriguneekin lotutako bidegorri bat egitea.
- Lurzoruaren zigilatzea murriztea. Proposatzen da hiriarteko parkea sortzean drainatze-teknika jasangarriak erabiltzea.
- Baliabideen erabilera jasangarria. Industrialde honetan kontzeptua izan da AHTko indusketa-lanetako soberako materiala erabiltzea lurzatiak eta bideak egiteko zabalgunek sortzeko, era horretara soberakin horiek ez zitezen lurraldean barreiatuta gera. Teoria hori mantendu egin beharko da oraindik egitekoa den lur-mugimenduan, eta horrek lehendik dauden baliabideak optimizatzea ahalbidetuko du.
- Energiaren aurrezpena, efizientzia eta energia berriztagarriak. Pabiloientzat aurreikusitako orientazioa, nagusiki iparraldetik hegoalderakoa, kokapen optimoa da eguzki-argia aprobetxatzeko. Bestalde, argiteria publikoan energia aurrezteko teknikak baliatuko dira, eta led argiak jarriko dira eta argi-puntuak presentzia-detektigailuen bidez piztu eta itzaliko dira hiriarteko parkearen eta bidegorriaren eremuan.
- Airearen kalitatea. Industria-pabiloiek airearen kalitatea bermatuko duen sistema erabiliko dute, indarrean dagoen araudiari jarraituz.
- Argi-kutsadura. Urbanizazio-proiektuan argiteria diseinatzen denean kutsadura-mota horri buruzko egungo araudia beteko da, eta araudi hori berariaz beteko duten argiak aurreikusiko dira.



- Inpaktu akustikoa. Inpaktu akustikoa Acusmed enpresak egin duen eta HAPB honen Ingurumen Azterlan Estrategikoaren 1. Eranskinean jaso den azterlanaren arabera aztertu da. Azterlan horren arabera ondoriozta daiteke garapen industrial berriarekin ez direla gaindituko egungo araudian kalitate akustikoari dagokionez ezarritako helburuak.

Bestalde, ingurumena leheneratzeko planteatutako jarduera diseinatzean honako irizpideak eta baldintzatzaileak ezarri dira:

- Ingurumena eta paisaia leheneratzeko proposatutako jarduketak, ahal den neurrian, obrak egiten diren aldi berean egikarrituko dira, obra horiek aurrera egin ahala egin ahal izan daitezen eremua berriz landareztatzeko lanak.
- Landa daitezkeen espezieak hautatzeko, aztertu dira:
 - Eremuan gaur egun dauden eta egon litezkeen landareak.
 - Baldintza edafoklimatikoak eta orientazioari dagozkionak.
 - Ur-beharrak eta errekaetakoaren ibilguarekiko eta uraldiei eusteko urmaelarekiko hurbiltasuna.
 - Ibilguaren eta errekaetakoaren ertzen, eta uraldiei eusteko urmaelaren eta inguruaren egungo egoera.
 - Desagerrarazi behar den landare exotiko inbaditzaile eraldatzailerik badagoen (Ingurumen Azterlan Estrategikoaren 3. Eranskina).
 - Hiri Antolamenduko Plan Berezia.
- Kontuan izan dira "Apatta" Tolosaldeko Eskualdeko Industrialdea urbanizatzeko proiektuaren ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko azterlanean (Ekos Estudios Ambientales SL, 2001eko urria), Apattako ibarbidearen betelanean Euskadiko Trenbide Sare Berriko hondeaketetako materialak erabiltzeko proiektu teknikoaren ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko azterlanean (Ekos Estudios Ambientales SLU, 2009ko abendua) eta Ingurumen Azterlan Estrategikoan (2. Eranskina. Ingurumena eta Paisaia Leheneratzeko Proiektua) jasota dauden eta aplikatzekoak diren alderdiak ere.
- Era berean, urbanizazioan eta hirigintza-azpierrean orain arte egindako landareztatze-jarduketak ere aztertu dira. Landa-bisitaldietan egiaztatu dira jarduketa horiek eta baloratu da horien egoera eta bilakaera.



4.6.2.- Ingurumena eta paisaia leheneratzeko tratamenduak

Ingurumena eta paisaia leheneratzeko proposatutako tratamenduek barne hartzen dituzte gainazala higitzea eragozteko gainestaldura-teknikak: soropila ezartzea, sahats-aldaxka bidez ezpondak egonkortzeko teknikak, eta, bi horiek ekologia eta paisaia helburuekin osatzeko, bertako landare-espezieak aldatzea.

Hasiera batean bost dira ingurumena eta paisaia leheneratzeko jarduketan xede diren eremuak (ikus 11-A planoan (Ingurumena eta paisaia leheneratzeko jardunen zonakatzea)):

- Azpierrezuaren mendebaldean, Apatta errekaostaren eskuinaldean eta hegoaldera dagoen eremua: haltzadi kantauriarra eta haritzia-hostozabalen baso mistoa leheneratzea planteatzen da.
- Azpierrezuaren mendebaldean, Apatta errekaostaren ibilguan, harez hartutako harri-lubeten bidez egindako ezpondak: sahats-aldaxka bidez egonkortzeko teknikak planteatzen dira.
- Azpierrezuaren mendebaldean, Apatta errekaostaren ezkerrekoa: lur-erazketa bidez sortutako ezpondak espezie belarkarekin eta zurezkoekin estaltzea planteatzen da.
- Azpierrezuaren iparraldean dagoen uraldiei eusteko urmaela, Apatta errekaostari lotuta dagoena: uretako eta zingirako espezieekin eta erriberako espezieekin landareztatzea proposatzen da, eta babes-eremu periferikoa ezartzea tokiko zuhaitz eta zuhaixka espezieekin.

Berriz landare hornitzeko tratamendu espezifikoei ekin aurretik, hidroereintzak eta landaketak berme osoz hartzeko ahalik eta baldintzarik onenetan egon beharko dute gainazalek. Horretarako, behar bezala egingo dira uholdeen aurkako lezoia, lurzatieko lur-mugimenduak, ezpondak, drainatzeak eta gainerako zerbitzuak instalatzeko lanak, eta lursaila behin betiko profilatzeko eta kokapena garbitzeko lanak, besteak beste.

Urtebeteko bermealdian hidroereintzak eta landaketak mantentzeko lanak egingo dira, eta, zehazki, belarra moztuko da eta zuhaitzak eta zuhaixkak ureztatuko dira.

11-B planoan ("Ingurumena eta paisaia leheneratzeko jardunak") daude zehaztuta jarraian deskribatzen diren jardunak.



4.6.2.1.- Lehenertzeko tratamenduak Apatta errekaostaren eskuinaldean, hegoaldeko zatian

Apatta errekaostaren eskuinaldean, hegoaldera, eskualdeko industrialdearen zabalkuntzaren mendebaldeko ertzean, bi landare-zerrenda ezarriko dira Apatta errekaostaren ibilguaren hurbiltasuna eta ur-baliabideak kontuan hartuta: lehenengo zerrenda ibilguari atxikita, haltzadi kantauriarreko bertako zuhaitz eta zuhaixka espezieekin, eta, ondoren, ibilgutik apur bat urrunduta, bigarren zerrenda bat harizti-hostozabalen baso mistoko bertako zuhaitz eta zuhaixka espezieekin.

Era berean, landaketak diseinatzean kontuan izan da bertan zerbitzu-sarerik badagoen, besteak beste, proiektatutako euri-uren eta saneamenduaren sare berria eta egungo saneamendu- eta gas-sarea.

4.6.2.1.1.- Haltzadi kantauriarra

Hiri Antolamenduko Plan Berezian zehazten den eta ibilguaren ezponden eta uholdeen aurkako lezioaren artean dagoen bermari dagokion ezohiko uholdeen (ibilgua gainezkatzen duten eta ohiko gehieneko ur-goraldia gainditzen duten ur-goraldiak) zerrenda hartuz, haltzadi kantauriarra berreskuratzea proposatzen da Apatta errekaosta desbideratzen den lekuan.

Adierazi behar da, harri-lubetekin egindako ezpondak eta Apatta errekaostaren desbiderapenaren ertzak landareztatze 2011ko otsailetik 2012ko otsailera bitartean egin ziren lanetan haritz kandudunaren (*Quercus robur*) ilara bat landatu zela Hiri Antolamenduko Plan Berezian proiektatutako uholdeen aurkako lezioaren eta ibilguaren ezponden artean dagoen berman, eta lehentasuna emango zaio horren kontserbazioari.

Hala badagokio, eta landareztatze-lanei ekin aurretik, lursailak egokituko dira (garbitu, soildu, zaborrak bildu, egiturak eta zerbitzuak egokitu, airatu, eta abar). Hasiera batean, eta behar bezala egokitutako lurrazalean, kanpotik ekarritako landare-lurra, 30 cm-ko geruza, bota eta zabalduko da. Ondoren, eta behin lurra hidroereintzarako prestatu ondoren, espezie belarkarak hidroereingo dira estali gabe.

Erabilitako belar-hazien nahasketa H1 motakoa izango da:

H1 HAZI-NAHASKETA	%	Kg/1.000 m ²
<i>Agrostis tenuis</i> Highland	5	1,6
<i>Festuca ovina</i> Ridu	30	9,6



<i>Festuca rubra</i> Samanta	30	9,6
<i>Lolium perenne</i> Belida	10	3,2
<i>Lolium perenne</i> Esquire	10	3,2
<i>Poa pratensis</i> Balin	5	1,6
<i>Trifolium repens</i> Rivendel	10	3,2
HAZIAK GUZTIRA	100	32,0

Behin hidroereintza-lanak egin ondoren, haltzadi kantauriarreko berezko zuhaitz eta zuhaixka espeziak landatuko dira, eta hauek izango dira espezieak eta proportzioak: % 60 haltza-aliso (*Alnus glutinosa*), % 10 lizarra-fresno (*Fraxinus excelsior*), % 10 hurritza-avellano (*Corylus avellana*), % 10 sahats iluna-bardaguera edo salguero negro (*Salix atrocinerea*) eta % 10 intsusa beltza-saúco (*Sambucus nigra*).

Hiruzuloka landatuko da, ilaren artean 1,5 m utziko dira eta ilara bereko landareen artean 2 m. Espezieen eta tamainaren araberako landareen banaketa irregularra izango da, landaketak, ahal den neurrian, formazio naturalaren itxura izan dezan.

4.6.2.1.2.- Haritzia-hostozabalen baso mistoa

Hiri Antolamenduko Plan Berezian ezarritako eta bermak eta uholdeen aurkako lezoiaren ezpondek eraturako zerrendan haritzia-hostozabalen baso mistoa landatzea proposatzen da.

Hala badagokio, eta landareztatze-lanei ekin aurretik, lursailak egokituko dira (garbitu, soildu, zaborrak bildu, egiturak eta zerbitzuak egokitu, airatu, eta abar), eta hidroereintza-lanak aurreko atalean azaldu den bezala egingo dira.

Azkenik, zuhaitz eta zuhaixka masa bat landatzea proposatzen da, harizti-hostozabalen baso mistoko espezieekin, eta hauxe izango da konposizioa eta proportzioa: % 40 haritz kanduduna-robale pedunculado (*Quercus robur*), % 20 lizarra-fresno (*Fraxinus excelsior*), % 10 urkia-abeldul (*Betula alba*), % 10 astigar zuria-arce blanco (*Acer pseudoplatanus*), % 10 elorri zuria-espino blanco edo majuelo (*Crataegus monogyna*) eta % 10 zuhandorra-cornejo (*Cornus sanguinea*).



Hiruzuloka landatuko da, ilaren artean 2 m utziko dira eta ilara bereko landareen artean 4 m. Espezieen eta tamainaren araberako landareen banaketa irregularra izango da, landaketak, ahal den neurrian, formazio naturalaren itxura izan dezan.

4.6.2.2.- Leheneratzeko tratamenduak Apatta errekaostaren eskuinaldean, iparraldeko zatian

Apatta errekaostaren eskuinaldean, iparraldera, eskualdeko industrialdearen zabalkuntzaren amaieratik uraldiei eusteko urmaelera arte, bi landare-zerrenda definitu dira, Apatta errekaostaren ibilguaren hurbiltasuna eta ur-baliabideak kontuan hartuta: lehenengo zerrenda ibilguari atxikia, haltzadi kantauriarreko berezko eta bertako zuhaitz eta zuhaixka espezieekin; eta, ondoren, ibilgutik apur bat urrunduta, bigarren zerrenda, harizti-hostozabalen baso mistoko berezko eta bertako zuhaitz eta zuhaixka espezieekin.

Era berean, landaketak diseinatzean kontuan izan da bertan zerbitzu-sarerik badagoen, besteak beste, proiektatutako euri-uren eta saneamenduaren sare berria eta egungo saneamendu- eta gas-sarea.

4.6.2.2.1.- Haltzadi kantauriarra

Apatta errekaostaren ibilguaren eskuinaldeko ezpondari atxikitako zerrenda estua hartuz, uraldiei eusteko urmaeletik ibarbidera jaisten den mazelaren goiko aldean, Apatta errekaostaren desbiderapenean haltzadi kantauriarra berreskuratzeko asmoa dago.

Hala badagokio, eta landareztatze-lanei ekin aurretik, lursailak egokituko dira (garbitu, zaborrak bildu, egiturak eta zerbitzuak egokitu, airatu, eta abar). Landaketari ekin aurretik, gainazaleko belarra moztuko da.

Behin hidroereintza-lanak egin ondoren, haltzadi kantauriarreko berezko zuhaitz eta zuhaixka espeziak landatuko dira, eta hauek izango dira espezieak eta proportzioak: % 60 haltza-aliso (*Alnus glutinosa*), % 10 lizarra-fresno (*Fraxinus excelsior*), % 10 hurritza-avellano (*Corylus avellana*), % 10 sahats iluna-bardaguera edo salguero negro (*Salix atrocinerea*) eta % 10 intsusa beltza-saúco (*Sambucus nigra*).

Hiruzuloka landatuko da, ilaren artean 1,5 m utziko dira eta ilara bereko landareen artean 2 m. Espezieen eta tamainaren araberako landareen banaketa irregularra izango da, landaketak, ahal den neurrian, formazio naturalaren itxura izan dezan.



4.6.2.2.2.- Haritzia-hostozabalen baso mistoa

Uraldiei eusteko urmaeletik ibarbidera jaisten den mazelan, eta haltzadi kantauriarraren ondoan, haritzia-hostozabalen baso mistoa landatzea proposatzen da.

Hala badagokio, eta landareztatze-lanei ekin aurretik, lursailak egokituko dira (garbitu, zaborrak bildu, egiturak eta zerbitzuak egokitu, airatu, eta abar). Landaketari ekin aurretik, gainazaleko belarra moztuko da.

Azkenik, zuhaitz eta zuhaixka masa bat landatzea proposatzen da, harizti-hostozabalen baso mistoko espezieekin, eta hauxe izango da konposizioa eta proportzioa: % 40 haritz kanduduna-robe pedunculado (*Quercus robur*), % 20 lizarra-fresno (*Fraxinus excelsior*), % 10 urkia-abeldul (*Betula alba*), % 10 astigar zuria-arce blanco (*Acer pseudoplatanus*), % 10 elorri zuria-espino blanco edo majuelo (*Crataegus monogyna*) eta % 10 zuhandorra-cornejo (*Cornus sanguinea*).

Hiruzuloka landatuko da, ilaren artean 2 m utziko dira eta ilara bereko landareen artean 4 m. Espezieen eta tamainaren araberako landareen banaketa irregularra izango da, landaketak, ahal den neurrian, formazio naturalen itxura izan dezan.

4.6.2.3.- Leheneratze-tratamenduak harri-lubeten bidez egindako ezpondetan eta Apatta errekaostaren ezker aldean

Harri-lubeten bidez egindako ezpondetako eta Apatta errekaostaren ezker aldeko leheneratze-tratamenduak Apattako ibarbidean Euskadiko Trenbide Sare Berriko hondeaketa-materialeko betelana egiteko proiektu teknikoko obrak egin zirenean egikaritu ziren, 2011ko otsailetik 2012ko otsailera bitartean (obra zibila 2011n amaitu zen, eta sahas-aldaxkak 2012ko urtarrilean eta otsailean sartu ziren), Apattako ibarbidean Euskadiko Trenbide Sare Berriko hondeaketa-materialeko betelana egiteko proiektu teknikoak ingurumenen duen inpaktuari buruzko azterlanari (Ekos Estudios Ambientales SLU, 2009ko abendua) jarraituz eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Ingurumeneko sailburuordearen 2011ko azaroaren 15eko ebazpena, Euskadiko Trenbide Sareari Apattako ibarbidean (2), Ibarra eta Tolosako udalerrietan (Gipuzkoa), betelana egiteko baimena ematen diona, betetzeko, bertan ezartzen diren baldintzei jarraituz egiteko baldintzapean.

Bermealdiaren amaieran, 2013ko otsailean, egin ziren hutsuneak betetzeko lanak.



Proiektu hau idazteko bertara egindako bisitaldietan harri-lubeten bidez egindako ezpondetan eta Apatta errekaostaren ezker aldean egindako leheneratze-tratamenduak egiaztatu dira, eta egoera onean daude eta bilakaera egokia dute.

4.6.2.4.- Leheneratze-lanak ekaitz-uren tanga

Uraldiei eusteko urmaeleko leheneratze-tratamenduak "Apatta" Tolosaldeko Eskualdeko Industrialdea Urbanizatzeko Proiektuko obrak egin zirenean egikaritu ziren, 2002 eta 2006 artean, "Apatta" Tolosaldeko Eskualdeko Industrialdea Urbanizatzeko Proiektuak ingurumenean duen inpaktuari buruzko azterlanean (Ekos Estudios Ambientales SL, 2001eko urria) zehaztutakoari jarraituz, eta Nekazaritza eta Ingurumeneko foru-diputatuaren 2002ko uztailaren 29ko Foru Agindua, Tolosaldeko Eskualdeko Industrialdea, "Apatta-Erreka", Urbanizatzeko Proiektuak ingurumenean duen inpaktuaren adierazpena formulatzen duena, betetzeko.

Era berean, eta adierazitako Ingurumen Inpaktuaren Adierazpena betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritzara igorri zen "Apatta" Tolosaldeko Eskualdeko Industrialdea Urbanizatzeko Proiektua. Ustiapen fasean ingurumena zaintzeko programa. 2007-2008 aldia.

Proiektu hau idaztean bertara egindako bisitaldietan uraldiei eusteko urmaelean egindako landareztatze-lanak egiaztatu dira, eta egoera onean daude eta bilakaera egokia dute.

4.6.2.5.- Hiriarteko parkea

Plan Berezi honetan proposatutako antolamenduan planteatzen da hiriarteko parke bat egitea ekaitz-tangatik errekaostan gora, iparraldera. Parke hori "18.1 (Tolosa) – Ibarako lursailak" Azpieroemua urbanizatzeko proiektuan zehaztuko da, eta diseinu-irizpideak Tolosako eta Ibarako udalek eta, planteatutako industria-garapenaren sustatzaile gisa, Tailsak ezarriko dituzte. Irizpide horiek kasu guztietan beteko dute irisgarritasunari buruzko araudia, eta behar besteko oreka lortu beharko da sortuko den paisaia berrian, bai eta behar bezalako erosotasuna ere parkean egoteko guneetan (itzal-eremuak, jolaserako lekuak, eta abar).



5.- HAPBa INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA ERREGIMENEO IRIZPIDEETARA DOITZEN DELA JUSTIFIKATZEA

Hirigintzako estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuaren arabera, planteatutako antolamenduak dekretu horretan adierazitako hainbat parametro bete behar ditu. Zehazki, eta industria-garapenerako eremu bat izanik, dekretuaren honako artikulua bete behar dira:

3. artikulua. Gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasun-estandarrak betetzea.

2.- Nagusiki industria-erabilera, hirugarren sektorerako erabilera edo jarduera ekonomikotarako erabilera duten area edo sektoreen kasuan, lursail pribatiboek duten azaleraren baturaren eta arearen edo sektorearen guztizko azaleraren arteko erlazioaren bidez egiaztatu ahal izango da 2/2006 Legearen 77.5 artikuluan ezarritako estandarra betetzen dela.

Horrek esan nahi du okupazioak % 30etik gorakoa izan behar duela lursail pribatiboek duten azaleraren baturaren eta arearen edo sektorearen guztizko azaleraren arteko erlazio gisa. Kasu honetan lursail pribatuen azalera garbia 62.918 m²-koa da eta sektorearen azalera osoa 154.300 m²-koa, okupazioa, beraz, % 40,84koa da, adierazitako gutxieneko okupazioa baino handiagoa, alegia.

6. artikulua. Tokiko sistemen sareko zuzkiduratarako eta ekipamendutarako lursail-erreserbarako gutxieneko estandarrak hiri-lurzoru finkatugabeen, bai jarduketa integratuetan, bai eraikigarritasuna handitzeagatiko zuzkiduretan.

2.- Hiri-lurzoru finkatugabeen, aurreko atalean aurreikusi diren eta nagusiki bizitegitarako ez diren bi kategorietan, hirigintza-plangintzak honako estandar hauek ezarriko ditu, gutxienez:

a) Berdegunetarako eta espazio libretarako gordetako lurzorua, arearen edo zuzkidura-jarduketaren guztizko azaleraren % 6koa. Lurzoru horren erdia aparkaleku publikotarako erabili ahal izango da.

b) Nagusiki hirugarren sektorerako erabiliko diren lurzoruetan, 0,35 aparkaleku-plaza gorde beharko dira, gutxienez, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako, jabetza pribatuko lursailetan zuzkidura publikoetarako ez diren azalera kontuan hartuta.



c) Landaretarako, zuhaitz bat landatu edo iraunarazi beharko da gehitutako ehun metro eraikiko.

Berdegunetarako eta espazio libretarako lurzoruari buruzko 2.a atalari dagokionez, esparruaren azaleraren % 6tik gorakoa izatea eskatzen da. Kasu honetan berdegunetarako azalera 55.975 m²-koa da, eta sektore osoa 154.300 m²-koa izanik, % 36,28 da.

2.b. atalari dagokionez, ez da HAPB honetan aplikatzekoa, nagusiki hirugarren sektorerako erabiliko diren lurzoruetarako bakarrik baita, eta kasu honetan nagusiki industriarako erabiliko den lurzorua da. Edonola ere, eta hirigintzari, eraikuntzari eta ingurumena, paisaia eta natura babesteari buruzko udal-ordenantzetan ezarritakoari jarraituz, etxebizitza-erabilerarako izango ez diren lursailei eta eraikinei buruzko 92.2 eta 98. artikuluetan adierazten da erabilera edo jarduera nagusirako aurreikusten diren 100 m²(s) bakoitzeko ibilgailuak aparkatzeko plaza bat egokitu beharko dela.

Alde horretatik, eta HAPB honetan planteatutako antolamenduan oinarrituta y partzela bakoitzaren eraikigarritasunaren proportzioan egindako banaketan eta kontuan izanda %90-a kotxeentzako plazak izango direla eta %10-a bizikletentzako, partzela bakoitzean egon beharreko plazak honako hauek dira:

PARTZELAK	OKUPAZIOA (SOLAIRUARTERIK GABE)	%	GUZTIZKO PLAZAK		
			PARTZELA PRIBATUAN	AUTOAK	BIZIKLETAK
IBARRA					
L	9.924	% 21,47	70	63	42
M	5.056	% 10,94	35	32	18
N	5.307	% 11,48	37	33	24
Ñ	2.541	% 5,50	18	16	12
GUZTIRA			160	144	96
TOLOSA					
P	8.692	% 18,80	61	55	36
Q	4.384	% 9,48	31	28	18
R	5.054	% 10,93	35	32	18
S	5.271	% 11,40	37	33	24
GUZTIRA			164	148	96
GUZTIRA	46.230	% 100,00	324	292	192

Gainera, kontuan hartzen badugu bide publikoko plazak (138 plaza) poligonoko langileek erabiliko dituztela, industrialdea hirigunetik urrun baitago, lehen aipatutako estandarra betetzeko konputatu daitezke.



Gero, kontuan hartuta bide publikoan 138 plaza daudela eta bide pribatuan 324 plaza daudela, edo, bestela esanda, guztira 432 plaza daudela, estandarra betetzen da.

Artikulu hori HAPB honetan ezartzeko aztertzen bada, kontuan hartuta bizikletaz bertara iristeko, bai Apatta auzotik bizikleta-bide independentea erabiliz bai Ibarrako herrigunetik egungo bidea erabiliz, % 9-% 10eko gehieneko maldak igaro behar direla, adierazi behar da Apattaerreka industrialdera iristeko garraibide gisa bizikletaren erabilera mugatua dela, eta bizikletak aparkatzeko 100 m²-ko ratioa, agian, handia dela. Hori dela eta, eta bi udalen irizpidearen arabera, eta garraibide gisa bizikleta erabiltzeak industrialde berriko langileek erabiliko dituzten autoen kopurua murriztu egingo duela kontuan hartuta, erabaki da 462 aparkalekuko ratioa mantentzea malgutasun baten barruan, eta bizikletentzako aparkalekuen ehuneko eskaera errearen arabera izatea, kontuan hartuta ibilgailuentzako aparkaleku batek bizikletentzako 6 aparkaleku izatea ahalbidetzen duela.

Azkenik, eta Hirigintzako estandarrei buruzko Dekretuaren 2.c artikuluari dagokionez eta HAPB honen Ingurumen Azterlan Estrategikoaren 2. Eranskinaren (Ingurumena eta Paisaia Leheneratzeko Proiektua) arabera, honakoa da eremuan landatzea aurreikusitako zuhaitz-kopurua:

zuhaitz-mota	neurketa
Quercus Robur	180
Hacer Pseudoplatanus	46
Betula Alba	46
Fraxinus Excelsior	156
Alnus Glutinosa	391
GUZTIRA	819

Eremuan gutxienez 462 zuhaitz landatu behar dira, eta larregi betetzen da, beraz, hirigintzako estandarrei buruzko dekretua.

6.- BESTELAKO ZEHARRETARAKO GAIAK (GENERO IKUSPEGIA ETA EBALUAZIO SOZIOLOGIKOAK)

Plana idaztean kontuan izan dira planarekin zerikusia duten eta azpierrearen antolamendu xehatuaren testuinguruan koordinatu behar diren gai guztiak. Jarraian bereziki



aipatzen dira genero-ikuspegiarekin eta inpaktu linguistikoarekin zerikusia dutenak, kasu bakoitzean aplikatzekoa den legeria kontuan hartuta.

6.1.- GENERO IKUSPEGIA SARTZEA PLAN BEREZIKO PROPOSAMENETAN

Plan Berezi honetan proposatutako antolamendua formulatzean genero-ikuspegia txertatu da, honako gaiak kontuan hartuta:

- Herriaren, herri-inguruaren eta ingurumenaren kalitatea hobetzea, biztanleria osoarentzat eta, bereziki, emakumeentzat leku ez-segururak eta babesgabeak sortzea saihestuta.
- Industrialdera oinez eta bizikletaz iristeko bideak sortzea, ibilbide osoan argiteria publikoa jarrita.
- Industrialde barruko irisgarritasuna bermatzea, bai eta Ibarako Apattaerreka auzoko herri inguruko parke berrian ere.
- Hiri-ingurune lasaia eta barea, pertsonen zerbitzura egongo dena eta pertsonen arteko harremanak sustatuko dituen, antolatzea.

Horrela, ulertzen da Plan Bereziak erantzun egokia ematen diola gaian aplikatzekoa den legerian eta, bereziki, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legetan (otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta martxoaren 22ko 3/2007 Legea) ezarritakoari.

Memoria honen 1. eranskinean, generoaren ikuspegitik aurretiatzko ebaluazioa egitetik salbuesteko justifikazioa jasotzen da.

6.2.- PLANAREN INPAKTU LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean (7.7 artikulua, etab.), aurreikusitakoari jarraituz, "udalerrietako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planetan, euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira".

Adierazitakoari jarraituz, plan honen eta bertan proposatzen diren irtenbideen oinarritzko helburu gisa zehazten den Apattaerrekako Industrialdearen Azpierrezuaren antolamendu xehatuak ez du eraginik egoera soziolinguistikoan euskararen erabilerari



dagokionez, nahiz eta kontuan izan beharko den antolamendua exekutatzeko eta garatzeko proiektu zehatzak egiten direnean.

Horrek guztiak adierazten du Plan honetan proposatzen den planifikazioak ez duela eragin soziolinguistikorik, eta planifikazioa garatzeak ez duela inolako eraginik izango esparruko eta udalerrietako egoera soziolinguistikoan.

Edonola ere, kontuan izango da udalek euskararen erabilera normalizatzeko onartutako araudian eta planetan jasotakoa.

7.- IZAERA ARAUTZAILEA

Proiektu honen eduki arauemailea Plan Berezia osatzen duten dokumentuetan zehaztua badago ere, 2. dokumentua (ANTOLAMENDU-PLANOAK); 3. dokumentua (ORDENANTZA ERREGULATZAILEAK); eta 4. dokumentua (EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERLANA) dira bereziki izaera arauemailea dutenak eta hirigintza-jarduera arautzen dutenak, eta hirigintza-jarduera, beraz, dokumentu horietako zehaztapenei lotu beharko zaie derrigorrean.

Donostia, 2019ko martxoa

HAPBren egileak

Stua.: **Miguel Salaverria**
Bideetako ingeniaria

Stua.: **María Lasa**
Arkitektoa

Stua.: **Amaia Salaverria**
Bideetako ingeniaria

Stua.: **Tomás A. Mingot**
Abokatua



**1. ERANSKINA: GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO
EBALUAZIOA EGITETIK SALBUESTEKO JUSTIFIKAZIOA**

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224

1. dokumentua: MEMORIA

SALABERRIA INGENIERITZA SL, MARIA LASA, TOMAS MINGOT



Anexo II

Justificación de la exención de realizar la evaluación previa del impacto en función del género

ÁMBITO OBJETIVO:

Con carácter general, se ha de realizar la EIG de todos los proyectos normativos (ordenanzas, reglamentos, normas presupuestarias y urbanísticas).

No obstante, en lo relativo a este procedimiento se consideran exentos los proyectos normativos siguientes:

- A** Los que tengan un carácter esencialmente organizativo.
- B** Aquellos cuyo objeto sea refundir normas ya vigentes.
- C** Los que tengan como objeto modificar otras normas ya vigentes.
- D** Aquellos que carezcan de relevancia desde el punto de vista del género.

En cuanto a las propuestas de actos administrativos, sólo se realizará la EIG de aquellas relativas a convocatorias de ofertas públicas de empleo público y concursos de traslados.

¿Qué tipo de instrumento político se va a desarrollar?

- NORMA
 ACTO ADMINISTRATIVO

Si es una norma:

A ¿Tiene el proyecto normativo un carácter esencialmente organizativo?

SÍ

Justificación:

- Se refiere a estructura orgánica y funcional.
 Se refiere a la creación, organización y funcionamiento de órganos consultivos, de asesoramiento, investigación y coordinación compuestos exclusivamente por personal de la administración.
 Se refiere a la creación u ordenación de registros administrativos.
 Otros: _____

NO HA DE REALIZARSE LA EVALUACIÓN PREVIA DEL IMPACTO EN FUNCIÓN DEL GÉNERO.

El proceso no finaliza aquí, ya que se debe analizar el uso del lenguaje en la redacción del texto, así como otras posibles medidas: datos desagregados por sexo, participación equilibrada de mujeres y hombres en órganos consultivos, jurados..., promover la participación de mujeres en procesos participativos, etc.

Resultado: INFORME JUSTIFICATIVO DE LA EXENCIÓN

NO → Continuar



B ¿El objeto del proyecto normativo es refundir normas ya vigentes?

SÍ

Justificación:

NO HA DE REALIZARSE LA EVALUACIÓN PREVIA DEL IMPACTO EN FUNCIÓN DEL GÉNERO.

El proceso no finaliza aquí, ya que se debe analizar el uso del lenguaje en la redacción del texto, así como otras posibles medidas: datos desagregados por sexo, participación equilibrada de mujeres y hombres en órganos consultivos, jurados... , promover la participación de mujeres en procesos participativos, etc.

Resultado: INFORME JUSTIFICATIVO DE LA EXENCIÓN

NO → Continuar

C ¿El objeto del proyecto normativo es modificar una norma ya vigente?

SÍ → ¿La modificación resulta sustancial por lo que respecta a la situación de mujeres y hombres?

NO → Justificación:

NO HA DE REALIZARSE LA EVALUACIÓN PREVIA DEL IMPACTO EN FUNCIÓN DEL GÉNERO.

El proceso no finaliza aquí, ya que se debe analizar el uso del lenguaje en la redacción del texto, así como otras posibles medidas: datos desagregados por sexo, participación equilibrada de mujeres y hombres en órganos consultivos, jurados... , promover la participación de mujeres en procesos participativos, etc.

Resultado: INFORME JUSTIFICATIVO DE LA EXENCIÓN

SÍ → Continuar

NO → Continuar

D ¿El proyecto de norma carece de relevancia desde el punto de vista de género?

Supuesto de partida: Todas las normas, en términos generales, son relevantes desde el punto de vista de género, esto es, pueden tener un impacto diferente en mujeres y hombres, aun cuando esta consecuencia no estuviera prevista ni se deseara.

1 ¿La norma afecta directa, o indirectamente, a personas?

NO →

Justificación:

NO HA DE REALIZARSE LA EVALUACIÓN PREVIA DEL IMPACTO EN FUNCIÓN DEL GÉNERO.

El proceso no finaliza aquí, ya que se debe analizar el uso del lenguaje en la redacción del texto, así como otras posibles medidas: datos desagregados por sexo, participación equilibrada de mujeres y hombres en órganos consultivos, jurados... , promover la participación de mujeres en procesos participativos, etc.

Director General de Telecomunicaciones y Tecnologías de la Información



**3. ERANSKINA: PLAN HONI HASIERAKO ONESPENA EMATEN DIOTEN
GOBERNU BATZORDEEN UDAL-JAKINARAZPENAK**

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224

1. dokumentua: MEMORIA

SALABERRIA INGENIERITZA SL, MARIA LASA, TOMAS MINGOT



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)

Euskal Herria



TAILSA

C/Apatta-Uzturre, 1 Oficina 302

20400 Ibarra

JAKINARAZPENA

Nik, Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echavek, Ibarra-ko Udaleko Idazkaria naizenak, honakoa

JAKINARAZTEN DUT

2019ko maiatzaren 29an buruturiko Ibarra-ko Tokiko Gobernu-ko Batzordeak honako erabakia hartu zuela:

5.- 2019KO MAIATZAREN 16AN OSPATUTAKO HIRIGINTZA BATZORDEAREN IRIZMENEN INGURUKO ERABAKIAK 5.1 APATTAERREKA INDUSTRIALDEKO 18.1 (TOLOSA IBARRAKO TERRENOAK) AZPIEREMUAREN HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN BEREZIAREN HASIERAKO ONARPENA

"APATTAERREKA INDUSTRIALDEKO 18.1 (TOLOSA)-IBARRAKO TERRENOAK" AZPIEREMUAREN HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN BEREZIA. HASIERAKO ONARPENERAKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

2018ko irailaren 19an, lurren titular nagusiak, Tailsak, Plan Bereziko dokumentua aurkeztu zuen.

Agiriak kontuan zuen 2018ko apirilaren 12an Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza saileko Ingurumen administrazioaren Zuzendaritzak sinaturiko plan bereziaren ingurumen-azterlanaren irismeneko dokumentuaren zehaztapenak, Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak dioena kontuan hartuta.

Aldez aurretik, 2018ko irailaren 19ean Tailsak, "18.1. (Tolosa) -Ibarra-ko -lursailak" azpiero-osoari dagokion Hiri Antolamendu Plan Bereziaren ohiko Ingurumen Ebaluazio estrategikoa egitea eskatu zuten Tolosako eta Ibarra-ko Udalei.

Aipaturiko azpiero-osoak bi udalerrietako lurak hartzen dituzenez, bi udalerriek adostu zuten Plan Bereziaren tramitazio-ko beharrezkoak ziren ingurumen ebaluazio-ko txostenak nahiz sektorialak udal bakar batek tramitatzeko.

2019ko otsailaren 11ko, Alkatetzaren 66/2019 alkate dekretu bidez Plan berezia onartu aurretik egin beharrezko aldaketak jakinarazi zitzaizkion Tailsari.

2019ko otsailaren 6 eta 14an Tolosako udalak, bi udalen izenean, abiazio zibileko Zuzendaritza Nagusiari eta Telekomunikazio-ko eta informazio teknologiei buruzko Zuzendaritza Orokorrari tramitean aldeko txostena egin zezaten eskatu zuten, nahitaezkoak zirelako.

2019ko apirilaren 30ean, maiatzaren 9ko Telekomunikazioei buruzko 9/2014 Legean, jasotzen den txostena, jaso zen. Txostenean antzemandako ondorengo aldaketa



IBARRAKO UDALA

(Gipuzkoa)
Euskal Herria

jasotzea eskatu zen. Aldaketa horrek ordenantzen 37. artikuluan eragina du eta "red de telefonica" azaltzen den lekuetan " red de telecomunicaciones" agertzea eskatzen da.

2019ko apirilaren 25ean Plan Bereziaren ale berri bat aurkeztu zen.

Udal arkitektoak maiatzaren 5ean aldeko txostena sinatu zuen, eta bertan behin betiko agirian jaso beharreko bi aldaketa jaso dira.

2019ko maiatzaren 21ean, Estatuko abiazio zibileko Zuzendaritza Nagusiari eskaturiko zortasun aeronautikoari buruzko aldeko txostena iritxi da.

2019ko maiatzaren 16an ospatutako Hirigintza Batzordearen irizmena kontutan izan, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak, aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- "Apatzerreka industrialdeko 18.1 (TOLOSA)-Ibarrako terrenoak" azpierenmuaren hiri antolamenduaren Plan Bereziari hasierako onarpena ematea, baldintza hauetan:

Honako aldaketak egin beharko dira dokumentua behin betiko onartzeko :

a) Ordenantza Orokorreko 41. art.- ERROTULAZIOA ETA PUBLIZITATEA zeinak honela doien hitzez hitz: "Eraikuntza Proiektuetan industriei buruzko publizitate-errotuluak sistematizatzeko eta antolatzeko modua aztertuko da."

Gehitu testuak gutxienez Euskaraz izan beharko direla.

b) Ordenantza Orokorren 37. Artikuluan "red de telefonica" azaltzen den lekuetan " red de telecomunicaciones" agertzea .

c) La normativa deberá recoger el siguiente párrafo sobre servidumbres aeronauticas:

La totalidad del ámbito se encuentra incluida en las Zonas de Servidumbre Aeronauticas correspondientes al Aeropuerto de San Sebastian. En el plano normativo de las servidumbres aeronáuticas del Aeropuerto de San Sebastian se representan las líneas de nivel de las superficies limitadoras que determinan las alturas (respecto del nivel del mar) que no debe sobrepasar ninguna construcción (Incluidos todos sus elementos como antenas, pararrayos, chimeneas, equipos de aire acondicionado, cajas de ascensores, etc.) modificaciones del terreno u objeto fijo (postes, antenas, aerogeneradores incluidas sus palas , carteles), asi como el galibo de viario o via férrea.

Se debiera recoger el plano de servidumbres Aeronauticas del aeropuerto de San Sebastian.

d) Udal kontuhartzaileak bere txostenean eskatzen dituen betekizunak betetzea.

4. Dokumentua. 5. Atala zesioak: Atal honetako bigarren paragrafoaren erredakzio aldatzea, ez baita portzentaia hitzartu beharrekoa, baizik portzentai horretatik sortzen den aprobetxamenduaren zehaztapen materia, (partzela, dirua..)

Beraz, "Aprobetxamendu ehunekoak izango dira" esan beharrean "aprobetxamenduaren materializazioa izango da "

BIGARRENA.- Onartzea Apatzerreka eskualdeko industrialdearen 18.1 Tolosa-Ibarrako Lursailak azpierenmu osoari dagokion hiri antolamenduko plan bereziaren ingurumen azterlan estrategikoa

HIRUGARRENA.- Espedientea jendaurrean jartzea berrogeita bost egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko zabalkunderik handiena duen egunkarietako batean iragarkia argitaratuz.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Talsa enpresari jakinaraztea



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita. Horrela jasotzen baitu urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 123 eta 124 art.etan. Bestela, Administrazio-azietako errekurtsoa aurkez daiteke EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Sailean bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera

Edonola ere, berraztertze errekurtsoa jartzea aukeratuz gero, ezingo da administrazio-azietakoa aurkeztu hura berariaz ebatzi arte edo isiltasunez ezetsi arte. Hori guztia egoki irizitako bestelako errekurtsoa aurkeztea baztertu gabe.

Ibarran, 2019ko ekainaren 11n.

Ibarrako Udaleko Idazkaria,
Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224



Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **ESKU3aafe50d-9a89-491d-8073-bc9510c4a81a**
Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatze, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04210>
Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04210>



TOLOSAKO UDALA

2021eko urt. 28an Udalbatzak emana

BEHIN BETIKO ONESPENA BALDINTZEKIN

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224



TOLOSAKO UDALA

2021eko urt. 28an Udalbatzak emana

BEHIN BETIKO ONESPENA BALDINTZEKIN

Tolosako udala
Ayuntamiento de Tolosa

ESKURA JARTZE ELEKTRONIKOA PUESTA A DISPOSICIÓN ELECTRONICA

JAKINARAZPENAREN DATUAK / DATOS DE LA NOTIFICACIÓN

Asunto / Gaia:

Plan Bereziak
Planes Especiales

Eskuragarri dagoen data / Fecha de puesta a disposición:

2019/06/18 11:46

Igorlea / Remitente:

Tolosako udala
Ayuntamiento de Tolosa

Hartzailea / Persona destinataria:

TOLOSALDEKO APATTAERREKA INDUST LURRA SA - A20667184

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224



Egiaztapen Kode Segurua / Código Seguro de Verificación: **JAKI5bb235b8-65d4-4cd5-8d08-96b0e2064b07**

Dokumentu elektronikoko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uxt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uxt.gipuzkoa.eus?De=07110>



TOLOSAKO
UDALA



TOLOSAKO UDALA

2021eko urt. 28an Udalbatzak emana

BEHIN BETIKO ONESPENA BALDINTZEKIN

Tolosako Udala

2019-1901

2019/06/18 11:45

Interna / Satuta

AA190239

IZENA :

HELBIDEA:.....

HERRIA:

Gobernu Batzarrak, bi mila eta hemeretziko maiatzaren hogeita zazpian, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuela :

4. HASIERAKO ONESPENA EMATEA "18. APATTAERREKA" HIRIGINTZA ESPARRUKO 18.1 (TOLOSA)-IBARRAKO LURRAK" AZPIESPARRUKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI.

Aurrekariak:

2018/09/20an, Idoia Bastida Seguesek, TOLOSAKO APATTAERREKA INDUSTRIA LURRA, S.A. enpresaren izenean, "18. Apattaerreka" hirigintza esparruko 18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurra azpiesparruko hiri antolamenduko plan berezia aurkeztu zuen; ale bat euskaraz eta, bestea, gazteleraz, paperean eta cd-an.

Agiriaren barne dago azpiero horretako plan bereziaren Ingurumen-azterlan estrategikoa, zeinak ingurumen-azterlanaren irismeneko dokumentuaren zehaztapenak jasotzen dituen. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Ingurumen administrazioaren Zuzendaritzak egina, 2018ko apirilaren 12an (21/2013 legea). (B.5.1/18.1/2017/0001 espedientea).

2018/10/23an eta 2018/11/13an, bi bilera egin ziren Tailsa, Tolosa eta Ibarrako udaletako zenbait ordezkariarekin.

2018/11/20an, bilera horien ondorioz eraikigarritasunaren banaketa orekatzen duen ordenazio berri bat aurkeztu zuen Tailsak posta elektronikoz.

Udaleko Ingurumen eta Nekazaritza teknikariak eta Hirigintzako buruak txosten teknikoak egin ondoren, 2019/02/28an, alkatearen 2019/0368 Dekretuaren bidez, honako erabakia hartu zen:

"Lehena.- Eskatzaileari honakoak zuzentzeko eskatzea Planari Hasierako Onespena eman aurretik.

- Sestra azpiko eraikigarritasuna zehaztea.
- Ibilgailuentzako aparkalekuei dagokienez, beharrezko plaza kopurua betetzen dela justifikatzea. Eta dagozkion bizikleta-aparkalekuak kokatzea.
- Plana generoaren eta hizkuntzaren ikuspegitik ebaluatzea eta Planaren Memorian eta Araudian jasotzea azterketa horietan ondorioztatutako alderdiak.
- 2/2006 Legea eta 123/2012 Dekretuko estandarren justifikazioa aurkeztea.

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224
ESKUB085a1b7-fa51-4475-94e4-bca6db7df263



AA190239

- Udalari lagatu behar zaion eraikigarritasun haztatuaren %15eko lagapena zehaztea. Eta Bideragarritasun-ekonomiko-finanziarioari buruzko Azterlanean (5. dokumentuan) baloratzea eta Jasangarritasun Ekonomikoa izeneko dokumentuan (6. dokumentuan) jasotzea.
- Eremu honetan zenbait erabilera debekatzea proposatzen da:
 - gasolina-zerbitzuguneak, mota guztietako erregaien gordailu eta biltegiak, eta horien salmentarako guneak.
 - makinariarentzako, txatarrarentzako, ibilgailuentzako edo materialentzako biltegiak eta aire zabaleko gordailuak.
 - zoologia-guneak.
 - mehatze-industriak eta era guztietako erauzketak.Bestalde, erabilera bateragarri edo onargarrietan merkataritza-erabilera espresuki debekatzea ere proposatzen da, horrelako jarduera bat industria-eremuaren funtzionaltasunerako oztopo izan baitaiteke.
- Eraikinen okupazioa eta eraikigarritasuna kontatzeko erari dagokionez, 22. artikulua (eraikuntza-okupazioa) eta 25. artikulua (goiko solairuak, solairuarteak eta ganbarak) egokitzea, Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Arau Orokorren eta Urbanizazio, eraikuntza eta ingurumen, paisaia eta naturaren kontserbaziorako Udal Ordenantzaren arabera.
- O partzela ekipamendu publiko bezala definitzea. Hortaz, 424 m²-ko azalera duen lursail horrek 315 m²-ko eraikigarritasun fisikoa izango du.
- Planean Ibarako lurpeko pasabidetik poligonoraino oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna aurreikustea. Baita lehendik eraikita dagoen poligonoarekin konexioa eta poligono berriko barneko bidegorri sarea eta bizikleten aparkalekuarekiko lotura ere. Bizikletentzako bideak oinezkoen bidetik segregatua eta funtzionala izan beharko du.
- Urbanizazioen faseak eta honekin lotutako antolamendu xehatua egokitzea txosten teknikoan jasotzen denaren arabera. Izan ere, poligonoaren lehen fasea bakarrik eraikita dagoela ere mugikortasun modu guztiak ondo funtzionatzea bermatu beharko da.
- Kontserbazio-unitateak mantendu beharreko eremua egokitzea txosten teknikoan esandakoaren arabera. Jasangarritasun ekonomikoaren memoria ere zuzendu egin beharko da.
- Orokorrean, Plan Bereziaren ordenantzetan jasotzea ingurumen azterketa estrategikoan ondorioztatutako alderdiak; besteak beste, ibai-ibilgu perimetrala eta ekaitz-putzua lehengoratzeko neurriak jaso beharko dira; horien artean, ur emari minimo bat iraunkorki

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224
ESKU085a1b7-fa51-4475-94e4-bca6db7df263



TOLOSAKO
UDALA



TOLOSAKO UDALA

2021eko urt. 28an Udalbatzak emana

BEHIN BETIKO ONESPENA BALDINTZEKIN

AA190239

mantentzeko neurriak.

2019/04/30an, "8. Apattaerreka" hirigintza esparruko "18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurak" azpiesparruko hiri antolamenduko plan berezi zuzendua aurkeztu da.

Espedienteko txosten teknikoa ikusirik eta udal teknikariaren proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Hasierako onespena ematea 2019ko apirilaren 30ean aurkeztutako "18. Apattaerreka" hirigintza esparruko 18.1. (Tolosa)-Ibarrako lurak" azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziari.

BIGARRENA.- Jendaurrean jartzea Plan Berezia eta Ingurumen Azterlan Estrategikoa 45 EGUNEZ, alegazioak aurkeztu ahal izateko, eta dagokien administrazioei txostenak eskatzea, EJKo Irismen Agiriaren arabera.

HIRUGARRENA.- Agintzea, Planari behin betiko onespena eman aurretik, honakoak bete beharko direla, besteak beste:

1. Proposatutako aparkaleku kopurua egokitu egin beharko da honako irizpideak kontuan hartuta:
 - Aparkaleku publikoak ere konputatu arren, ibilgailuentzako aparkaleku plaza 1 aurreikusi beharko da 100 m²(s)-ko.
 - Aparkaleku pribatuek izan dezaketen eraikigarritasunarekin proportzioa mantendu beharko dute (lurgainean sartzan ez badira, sotoa eraikitzeko aukera aurreikusi beharko da ordenantza partikularretan).
 - Horretaz gain, bizikleten aparkalekuak aurreikusi beharko dira, autoak aparkatzeko erabiltzen den aparkaleku plaza pribatuekin batera. Autoen aparkalekuek okupatzen duten azaleraren % 10 izan liteke lursail bakoitzean bizikletentzat aurreikusi beharrekoa.
2. Plana generoaren eta hizkuntzaren ikuspegitik ebaluatu beharko da.
3. GI-2130-A errepidearen babes-eremuan egoteagatik Errepide Saileko baimena lortu beharko da.
4. Ekonomia eta Enpresa Ministerioko Telekomunikazio eta Informazioaren Teknologien Zuzendaritza Nagusiaren Txostenean jasotako baldintzak bete beharko dira.
5. Zortasun aeronautikoen aldeko txostena jaso beharko da.
6. Azpiegiturei dagokienez, lortu beharko dira udal ingeniariaren eta dagozkion administrazio edota erakundearen aldeko txostenak.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea TOLOSAKO APATTAERREKA

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224
ESKUB085a1b7-fa51-4475-94e4-bca6db7df263



TOLOSAKO
UDALA



TOLOSAKO UDALA

2021eko urt. 28an Udalbatzak emana

BEHIN BETIKO ONESPENA BALDINTZEKIN

AA190239

INDUSTRIA LURRA, S.A.-ri eta Ibarraiko Udalari.

Gobernu Batzarrak, bi mila eta hemeretziko ekainaren hamarrean, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuela :

**2.- ONARTZEA “18.APATTAERREKA” HIRIGINTZA ESPARRUKO 18.1 (TOLOSA)-
IBARRAKO LURRAK AZPIESPARRUKO PLAN BEREZIAREN INGURUMEN
AZTERLAN ESTRATEGIKOA.**

2018ko irailaren 19an sarrera erregistro data duen idatzi baten bitartez, industrialde honen ordezkari den Idoia Bastida Saguesek APATTAERREKA INDUSTRIALDEAREN 2. FASEAREN plan berezia tramitatzeko eskatzen dio udalari.

Lehenago, 2017ko irailean, EKOS Estudios Ambientales SLU enpresak Apattaerreka eskualdeko industrialdearen 2. faseari dagokion Ohiko Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako Hasierako Dokumentu Estrategikoa idatzi zuen.

Ingurumen ebaluazioari buruzko Legean (21/2013 Legea, abenduaren 9koa) aurreikusitako prozedurari jarraikiz, 2018ko apirilaren 12an Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritzak Plan Berezi honi dagokion **Ingurumen Azterlan Estrategikoaren Irismeneko dokumentua** egin zuen.

2018ko ekaineko datarekin EKOS Estudios Ambientales SLU enpresak Apattaerreka eskualdeko industrialdearen “18.1 (Tolosa) – Ibarraiko lursailak” azpieroemu osoari dagokion Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Ingurumen Azterlan Estrategikoa egin zuen, Eusko Jaurlaritzak egindako Irismeneko dokumentuan ezarritako irizpideak barneratuz.

2018ko irailaren 20an Idoia Bastida Saguesek, TOLOSAKO APATTAERREKA INDUSTRIA LURRA, S.A. enpresaren izenean, Ingurumen Azterlan Estrategikoa aurkeztu du, Tolosako udalari tramitazioa jarraitu dezan eskatuz.

Txosten honetan Ingurumen Ebaluazio Estrategikorako Azterlan Estrategikoa aztertuko da.

TXOSTENA

Dokumentua aztertuta, ondorengoa ondorioztatzen da:

- Ingurumen ebaluazioari buruzko Legearen (21/2013 Legea, abenduaren 9koa) IV eranskinean zehazten da Ebaluazio Estrategikorako Azterlan Estrategikoak izan behar dituen atalak. Azterlan hau 211/2012 Dekretuak ezartzen duenarekin osatu behar da.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumeneko Administrazioaren Zuzendaritzak Plan Berezi honi dagokion Ingurumen Azterlan Estrategikoaren Irismeneko dokumentua egin zuen,



TOLOSAKO
UDALA



TOLOSAKO UDALA

2021eko urt. 28an Udalbatzak emana

BEHIN BETIKO ONESPENA BALDINTZEKIN

AA190239

zehaztuz Ingurumen Azterlan Estrategikoak jaso behar zituen atalak goian aipatutako araudia kontuan hartuz.

- Ekos SLU enpresak egindako Ingurumen Azterlan Estrategikoak aipatutako araudi hori eta Irismen dokumentuak ezarritakoa betetzen du. Irismen dokumentuan beste erakunde batzuk emandako irizpideak kontuan hartu dira. Hala nola, Osasun Sailak, Ingurumen sailak, Kultura sailak eta Ura agentziak.

2019/02/28an Alkatearen 2019/0368 Dekretuaren bitartez poligonoaren sustatzaileari aurkeztutako Plan berezian honakoak zuzentzeko eskatzea onartu zen, Planari Hasierako Onespena eman aurretik..

1- Planean Ibarako lurpeko pasabidetik poligonoraino oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna aurreikustea. Baita lehendik eraikita dagoen poligonoarekin konexioa eta poligono berriko barneko bidegorri sarea eta bizikleten aparkalekuarekiko lotura ere. Bizikletentzako bideak oinezkoen bidetik segregatua eta funtzionala izan beharko du.

Ibarako lurpeko pasabidetik poligonoraino oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna aurreikusi du Plan Bereziak. Hala ere ez plan berezian ez Ingurumen Azterlan Estrategikoan ez da zehazten puntu hau. Lehendik eraikita dagoen poligonoarekin konexioa eta poligono berriko barneko bidegorri sarea eta bizikleten aparkalekuarekiko lotura **urbanizazio proiektuan** zehaztu egin beharko dira, ondorengoa kontuan hartuz:

1.1.- Ibaratik industrialde berrira bizikletentzako bide egokia eta funtzionala diseinatu dadin, oinezkoen bidetik segregatuta. Funtzionala hitzarekin, esan nahi da, bizikletentzako bidea eroso, segurua eta ahalik eta zuzenena izan behar duela.

1.2.- Industrialde berrira iristean Apatia-errekako lehen faseraino bizikletaz joan ahal izateko azpiegitura egokia proposatu, zehaztu eta planoetan irudikatu beharko da.

2. Orokorrean, Plan Bereziaren ordenantzetan jasotzea ingurumen azterketa estrategikoan ondorioztatutako alderdiak; besteak beste, ibai-ibilgu perimetrala eta ekaitz-putzua lehengoratzeko neurriak jaso beharko dira; horien artean, ur emari minimo bat iraunkorki mantentzeko neurriak.

Eskaera honi dagokionez ez plan berezian, ez Ingurumen Azterlan Estrategikoan ez da zehazten nola bermatuko den ibai-ibilgu perimetrala eta ekaitz-putzuan ur emari minimo bat iraunkorki mantentzeko neurriak. Urik gabe nekez egin ahal izango da eremu horien benetako ingurumen kalitatearen hobekuntza.

Hau ikusirik proposatzen da:

LEHENENGOA: 2018ko irailaren 20an aurkeztutako "18. Apatiaerrek" hirigintza esparruko 18.1. (Tolosa)-Ibarako lurra azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziari dagokion Ingurumen Azterlan Estrategikoari onespena ematea.



AA190239

BIGARRENA: Ingurumen ebaluazioari buruzko Legean (21/2013 Legea, abenduaren 9koa) aurreikusitako prozedurari jarraikiz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzara bidaltzea Plan Berezi honi dagokion Ingurumen Azterlan Estrategikoaren dokumentua, tramitazioa jarraitu dezan.

HIRUGARRENA: Txosten honetan esaten diren irizpideak kontuan hartzea ondoren idatziko den urbanizazio proiektuan, zehazki:

1.- Urbanizazio proiektuan Ibarako lurpeko pasabidetik poligonoraino oinezkoen eta bizikleten irisgarritasuna modu funtzionalean eta seguruan bermatzea. Horretarako, bizikletentzako bideak oinezkoen bidetik banandua izan beharko du.

2.- Urbanizazio proiektuak Ibai-ibilgu perimetrala eta ekaitz-putzuaren eremuak lehengoratzeko neurriak jaso beharko ditu; horien artean, ur emari minimo bat iraunkorki mantentzeko neurriak.

LAUGARRENA: Plan Berezia eta Ingurumen Azterlan Estrategikoa 45 EGUNEZ jendaurrean jartzea alegazioak aurkeztu ahal izateko.

BOSGARRENA: Eskatzaileari, Idoia Bastida Seguese-ri, TOLOSAKO APATTAERREKA INDUSTRIA LURRA, S.A- ordezkariari erabaki honen berri ematea.

Adeitasunez

Tolosan, 2019ko ekainaren 13an

Idazkaria

Begoña Garmendia Vazquez

Jakinarazpena duena:	jaso	Izena.....
		Abizenak.....
		NAN/D.N.I.....
Identidad del notificado:		Sinadura.....

	Urtea/Año	Hila/Mes	Eguna/Día
--	------------------	-----------------	------------------

Jakinarazpen data:

--	--	--

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224





4. ERANSKINA: UDALEN ESKAKIZUNAK BETE IZANAREN JUSTIFIKAZIOA

ESKU34cb8dec-8097-4a81-a5b3-6f1f4a6a6224



APATTA HAPB – ERANSKINA BEHIN BETIKO ONARPENA 2020KO MARTXOA

1.- ALDAKETAK TESTUETAN

UDAL ESKAERAK BETETZEN DIRELA JUSTIFIKATZEA

A. IBARRA

APATTAERREKA ESKUALDEKO INDUSTRIALDEAREN “18.1 (TOLOSA) – IBARRAKO LURSAILAK” AZPIESPARRUAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA hasieran onartzeari buruz Ibarako Udalaren ebazpenean ezarritako baldintzak (2019ko maiatzaren 29an egindako Gobernu Batzordea):

a. Ordenantza Orokorretako 41. artikularen idazkera aldatzea.

Ordenantza Orokorretako 41. art.: 2008ko Plan Partzialean honela jasota dago:

38. artikulua. Errotulazioa eta publizitatea.

Eraikuntza Proiektuetan, bertako industriei buruzko publizitate-errotuluak sistematizatzeko eta ordenatzeko modua aztertuko da.

Artículo 38. Rotulación y publicidad.

Los proyectos de Edificación estudiarán la forma de ordenar y sistematizar los rótulos publicitarios de las industrias.

Gaztelaniaz ez da ezer aldatzen. Beraz, eskatutako egokitzea euskarazko bertsioan egin behar da.

Euskaraz, zehazki 2008ko Plan Partzialean jasota zegoena jarri da:

Eraikuntza Proiektuetan, bertako industriei buruzko publizitate-errotuluak sistematizatzeko eta ordenatzeko modua aztertuko da.

b. Ordenantza Orokorretako 37. artikularen erredakzioa aldatzea.

• 37.1 art.

Lehen honako hau jartzen zuen lekuan:

- 1) *Lurzati eraikigarri guztiek izan beharko dituzte honako hauek: ur-hornidurako barruko sarea eta euri-urak eta hondakin-urak (ur beltzak eta industria-urak) bereizteko sarea (saneamendu-sare orokorrerako hargune independenteekin), argindarra hornitzeko sarea, telefono-sarea, eta bertan burutzen diren jarduera zehatzei aplikagarria zaien arautegiak eskatzen dituen zerbitzu-instalazio guztiak. Sare horiek proiektatzeko eta egikaritzeko, arlo hauetan indarrean dauden erregelamendu eta jarraibide teknikoetara joko da.[...]*



Orain honako hau dio:

Lurzati eraikigarri guztiek izan beharko dituzte honako hauek: ur-hornidurako barruko sarea eta euri-urak eta hondakin-urak (ur beltzak eta industria-urak) bereizteko sarea (saneamendu-sare orokorrerako hargune independenteekin), argindarra hornitzeko sarea, telekomunikazio-sarea, eta bertan burutzen diren jarduera zehatzetarako aplikagarria zaien arautegiak eskatzen dituen zerbitzu-instalazio guztiak. Sare horiek proiektatzeko eta egikaritzeko, arlo hauetan indarrean dauden erregelamendu eta jarraibide teknikoetara joko da.

c. “Zortasun aeronautikoei buruz honako paragrafo hau jaso beharko da araudian...”

- **23. Art.- ERAIKUNTZA ALTUERA ETA SOLAIRU KOPURUA** – Azken paragrafo bat gehitu da:

Bestalde, esparru osoa San Sebastián Aireportuari dagozkion Zortasun Aeronautikoko Zonen barruan dago. San Sebastián Aireportuari dagozkion zortasun aeronautikoak arautzen dituen planoan, eraikuntzek (beren elementu guztiak barne, adibidez, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuko ekipamenduak, igogailuen kutxak eta abar), lursailaren aldaketek edo objektu finkoek (zutoinak, antenak, aerosorgailuak, euren palak barne, kartelak), eta errepideetako edo trenbideko galiboek gainditu behar ez dituzten altuerak (itsas-mailarekin alderatuta) zehazten dituzten azalera mugatzaileen maila-lerroak irudikatzen dira. Hegazkineria Zibileko Zuzendaritza Nagusiak igorritako txostena barne hartzen da, baita, ordenantza orokor hauen eranskin gisa, San Sebastián Aireportuaren zortasun aeronautikoen araudia biltzen duen I. Eranskina ere.

- **26. art.- ESTALKIKO PROFILAK ETA PROFILAREN GAINEKO ELEMENTUAK** – Azken paragrafo bat gehitu da:

Era berean, San Sebastián Aireportuaren zortasun aeronautikoei buruzko 23. artikuluko azken paragrafoan adierazitakoa beteko da.

- **ERANSKINA. HEGAZKINERIA ZIBILAREN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN TXOSTENA, BERE I. ERANSKINA BARNE HARTUZ, SAN SEBASTIÁN AIREPORTUKO ZORTASUN AERONAUTIKOAK MUGATZEN DITUZTEN AZALEREN MAILA LERROEN PLANOA** – Eranskin gisa Hegazkineria Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren txosten osoa gehitu da bere I. Eranskinarekin batera.

- **3.2. DOK. PARTZELA ERAIKIGARRIEN ORDENANTZA PARTIKULARRAK** – Partzela bakoitzean, “ERAIKITZEKO ETA URBANIZATZEKO BALDINTZAK” ataleko “GEHIENEKO ALTUERA” puntuan ondorengo paragrafo hau erantsi da:

Era berean, San Sebastián Aireportuaren zortasun aeronautikoei buruzko 23. artikuluko azken paragrafoan (3.1. dok.) adierazitakoa beteko da.

- d. **4. Dok. dokumentuan “Aprobetxamendu-ehunekoak” beharrezkoak “Aprobetxamendua gauzatzeko” ipini behar du.**



Lehen honako hau jartzen zuen lekuan:

- b) *Bi udalerrietako bakoitzari dagozkion aprobetxamendu-ehunekoak bat etorriko dira Ibarako eta Tolosako Udalen eta poligonoko jabeen ordezkariak duen ituntze-batzarraren artean izenpetutako hitzarmenean finkatutakoekin.*

Orain honako hau dio:

- b) *Bi udalerrietako bakoitzari dagokion aprobetxamenduaren gauzatzea bat etorriko da Ibarako eta Tolosako Udalen eta poligonoko jabeen ordezkariak duen ituntze-batzarraren artean izenpetutako hitzarmenean finkatutakoekin.*



B. TOLOSA

APATTAERREKA ESKUALDEKO INDUSTRIALDEAREN “18.1 (TOLOSA) – IBARRAKO LURSAILAK” AZPIESPARRUAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA hasieran onartzeari buruz Tolosako Udalaren ebazpenean ezarritako baldintzak (2019ko maiatzaren 27an egindako Gobernu Batzordea):

1. Aparkaleku-plazen kopurua egokitzea, 1 plaza/ m² aurreikusiz, horien artean bide publikoan kokatutakoak ere zenbatuz, partzela bakoitzaren eraikigarritasunaren proportzioan. Partzela bakoitzean bizikletentzako aparkalekuak aurreikusi, autoentzako aurreikusitakoaren % 10eko azalera batean.

- **3.2.. DOK. PARTZELA ERAIKIGARRIEN ORDENANTZA PARTIKULARRAK –** Partzela bakoitzean “ERAIKITZEKO ETA URBANIZATZEKO BALDINTZAK” ataleko “APARKALEKUA” puntuan, guztizko aparkaleku-plazen kopurua, autoentzako plazen ehunekoa (% 90) eta autoentzako eta bizikletentzako aparkaleku-plazen kopurua zuzendu dira, ondorengo taularen arabera kalkulatuta:

PARTZELAK	OKUPAZIOA (SOLAIRUARTERIK GABE)	%	GUZTIZKO PLAZAK	AUTOAK	BIZIKLETAK
			PARTZELA PRIBATUAN		
IBARRA					
L	9.924	% 21,47	70	63	42
M	5.056	% 10,94	35	32	18
N	5.307	% 11,48	37	33	24
Ñ	2.541	% 5,50	18	16	12
GUZTIRA			160	144	96
TOLOSA					
P	8.692	% 18,80	61	55	36
Q	4.384	% 9,48	31	28	18
R	5.054	% 10,93	35	32	18
S	5.271	% 11,40	37	33	24
GUZTIRA			164	148	96
GUZTIRA	46.230	% 100,00	324	292	192
				292	32

PLAZA KOP./100m ² (s)	462	Egjaztatzea	
BIDE PUBLIKOAN	138	PARTZ. PRIB	324
PARTZELA PRIBATUAN	324	BIDE PUBLIKO	138
		GUZTIRA	462

2. Plana hizkuntzaren eta generoaren ikuspuntutik ebaluatzea.

1 Memoria dokumentuko Zeharkako beste gai batzuk (Genero-ikuspegia eta Ebaluazio soziolinguistikoak) izenburua daraman 6. atalean, gainera, Emakunde, Eusko Jaurlaritzaren eta Eudelen “Generoaren arabera inaktuaren aurretiazko ebaluazioak toki-erakundeetan ezartzeko diseinatutako tresnen eta prozesuaren azalpen-gida” dokumentuaren arabera genero-ikuspegitik ebaluazioa egiteko salbuespena justifikatzen duen Memoriari eranskin bat gehitu zaio. Eranskinen, gida horretako “II. Eranskina. Generoaren arabera inaktuaren aurretiazko ebaluazioa egitea salbuesteko justifikazioa” erantsi da.



Hizkuntzaren ikuspegitik, azterketa zehatz bat egin da. Plangintza-fase honetan eta egun eskura dagoen ezagutza kontuan hartuz, ez dakigu industrialdean zenbat enpresa kokatuko diren ezta zenbat lanpostu sortuko diren ere. Hortaz, ezin da egin esparru horretan erabilgarria izango den hizkuntzaren analisi zehatzik, batez ere bertan ezarriko diren enpresek baldintzatuko dutelako.

Horregatik, dokumentu honetan hainbat neurri zuzentzaile ezarri dira. Neurri horiek HAPB batean definitu eta arautu daitezke. **3. 1 – Ordenantza Orokorrak** dokumentuan honako hau erantsi da:

12. artikulua.- Urbanizazioa

Urbanizazio Proiektuak espazio publikoak diseinatu beharko ditu, erabileren nahasketa sustatuz, zokoak, gordelekuak eta irteera gabeko puntuak ekidinez edo ahalik eta gehien mugatuz, eta ibilbideen ikusgaitasun ona ahalbidetuz. Halaber, ibilbide horiek ondo argiztatuak egongo direla bermatu beharko du. Era berean, seinaleztapen argia, zehatza eta agerikoa diseinatu beharko du. Horri esker, erabiltzaileek non dauden eta nora doazen eta abar ezagutu ahal izango dute. Gainera, seinaleztapen horrek hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko legezko zehaztapenak errespetatuko ditu.

3. GI-2130-A errepidearen zortasun-zonan daudelako Errepideen arloak baimena emateko premia.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuaren aldeko sektore-txostena jasoenez, departamentu horren baimena eta onarpena dela ulertzen da.



4. Telekomunikazioen arloaren txostenaren baldintzak betetzea.

1) OBSERVACIONES DE CARÁCTER PARTICULAR

Los instrumentos de planificación urbanística objeto del presente informe parecen no adecuarse a la normativa sectorial de telecomunicaciones en, al menos, los siguientes aspectos:

a) Referencias en el instrumento de planificación urbanística a las redes de telefonía.

Con cierta frecuencia, los instrumentos de planificación urbanística contemplan solo el desarrollo de redes de telefonía. Cabe resaltar en este sentido, que se trata de referencias incorrectas, ya que hoy en día no se diseñan redes exclusivamente para telefonía, sino que las modernas redes de comunicaciones electrónicas se establecen para prestar una multiplicidad de servicios de telecomunicación que trascienden del ámbito de la telefonía.

En consecuencia, debería modificarse el artículo 37 del documento "ORDENANZAS REGULADORAS", sustituyendo las referencias a la "red telefónica" por referencias a la "red de telecomunicaciones" o "red de comunicaciones electrónicas".

3) CONCLUSIONES.

Analizado el instrumento de planeamiento urbanístico presentado, se comprueba que varios puntos del mismo no están alineados con la legislación vigente. La tabla siguiente establece una relación entre dichos puntos con las observaciones realizadas en el apartado 1 del presente informe:

Observación	Documento	Apartado	Vinculante
a	ORDENANZAS REGULADORAS	Artículo 37	Sí

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.2 de la Ley 9/2014, de 9 de mayo, General de Telecomunicaciones, se emite informe favorable en relación con la adecuación del PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN URBANA REFERENTE AL SUBÁMBITO "18.1 (TOLOSA) TERRENOS DE IBARRA" DEL MUNICIPIO DE TOLOSA (GIPUZKOA) a la normativa sectorial de telecomunicaciones, condicionado a la corrección de los errores contenidos en los apartados indicados anteriormente del citado instrumento de planificación urbanística. Una vez subsanados dichos errores, deberá remitirnos una copia de las correcciones efectuadas.

- **3.1.. DOK. ORDENANTZA OROKORRAK, 37. 1 Art.**

Lehen honako hau jartzen zuen lekuan:

- 1) *Lurzati eraikigarri guztiek izan beharko dituzte honako hauek: ur-hornidurako barruko sarea eta euri-urak eta hondakin-urak (ur beltzak eta industria-urak) bereizteko sarea (saneamendu-sare orokorrerako hargune independenteekin), argindarra hornitzeko sarea, **telefono-sarea**, eta bertan burutzen diren jarduera zehatzei aplikagarria zaien arautegiak eskatzen dituen zerbitzu-instalazio guztiak. Sare horiek proiektatzeko eta egikaritzeko, arlo hauetan indarrean dauden erregelamendu eta jarraibide teknikoetara joko da.*

Orain honako hau dio:

- 1) Lurzati eraikigarri guztiek izan beharko dituzte honako hauek: ur-hornidurako barruko sarea eta euri-urak eta hondakin-urak (ur beltzak eta industria-urak) bereizteko sarea (saneamendu-sare orokorrerako hargune independenteekin), argindarra hornitzeko sarea, **telekomunikazio-sarea**, eta bertan burutzen diren jarduera zehatzei aplikagarria zaien arautegiak eskatzen dituen zerbitzu-instalazio guztiak. Sare horiek proiektatzeko eta egikaritzeko, arlo hauetan indarrean dauden



erregelamendu eta jarraibide teknikoetara joko da.

5. Zortasun aeronautikoei buruzko txostena jasotzea.

- **3.1.. DOK. ORDENANTZA OROKORRAK, 23. Art.- ERAIKUNTZA ALTUERA ETA SOLAIRU KOPURUA** – Azken paragrafo bat gehitu da:

Bestalde, esparru osoa San Sebastián Aireportuari dagozkion Zortasun Aeronautikoko Zonen barruan dago. San Sebastián Aireportuari dagozkion zortasun aeronautikoak arautzen dituen planoan, eraikuntzek (beren elementu guztiak barne, adibidez, antenak, tximistorratzak, tximiniak, aire girotuko ekipamenduak, igogailuen kutxak eta abar), lursailaren aldaketek edo objektu finkoek (zutoinak, antenak, aerosorgailuak, euren palak barne, kartelak), eta errepideetako edo trenbideko galiboak gainditu behar ez dituzten altuerak (itsas-mailarekin alderatuta) zehazten dituzten azalera mugatzaileen maila-lerroak irudikatzen dira. Hegazkineria Zibileko Zuzendaritza Nagusiak igorritako txostena barne hartzen da, baita, ordenantza orokor hauen eranskin gisa, San Sebastián Aireportuaren zortasun aeronautikoen araudia biltzen duen I. Eranskina ere.

- **3.1.. DOK. ORDENANTZA OROKORRAK, 26. Art.- ESTALKIKO PROFILAK ETA PROFILAREN GAINEKO ELEMENTUAK** – Azken paragrafo bat gehitu da:

Era berean, San Sebastián Aireportuaren zortasun aeronautikoen baldintzatutako gehieneko altuerei buruzko 23. artikuluko azken paragrafoan adierazitakoa beteko da.

- **3.1.. DOK. ORDENANTZA OROKORRAK – ERANSKINA. HEGAZKINERIA ZIBILAREN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN TXOSTENA, BERE I. ERANSKINA BARNE HARTUZ, SAN SEBASTIÁN AIREPORTUKO ZORTASUN AERONAUTIKOAK MUGATZEN DITUZTEN AZALEREN MAILA LERROEN PLANOA** – Eranskin gisa Hegazkineria Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren txosten osoa gehitu da bere I. Eranskinarekin batera.

- **3.2.. DOK. PARTZELA ERAIKIGARRIEN ORDENANTZA PARTIKULARRAK** – Partzela bakoitzean, “ERAIKUNTZA ETA URBANIZAZIO BALDINTZAK” ataleko “GEHIENEKO ALTUERA” puntuan ondorengo paragrafo hau erantsi da:

Era berean, San Sebastián Aireportuaren zortasun aeronautikoen baldintzatutako gehieneko altuerei buruzko Ordenantza orokorren 23. artikuluko azken paragrafoan (3.1. dok.) adierazitakoa beteko da.

6. Azpiegiturei dagokienez, udal-ingeniariaren eta dagozkien Administrazioen eta Erakundeen aldeko txostena jaso beharko da.

Administrazio hidraulikoen artean organo goren gisa, Ekialdeko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren aldeko txostena jaso da.

URAREN aldeko txostena jaso da baldintza batekin: dokumentazio grafikoan hondoko draina adierazi beharko da. Zonakatze Xehatuaren, Lerrokaduren eta Sestren planoetan zuzenketa hori egin da. Azpiegituren gainean baldintzarik ipintzen ez denez, alderdi horri



dagokionez txostena aldekoa dela jakintzat ematen da.

Bestalde, esparruko edateko ur eta saneamenduko azpiegituren arduraduna den aldetik, Gipuzkoako Urak erakundearen aldeko txostena jaso da.

Bi udal horietako ingeniari arduradunen txostenik jaso ez denez, Plan Berezi honetan aipatutakoa ontzat ematen dutela ulertzen da.



2.- PLANOETAN ALDAKETAK

UDAL ESKAERAK BETETZEN DIRELA JUSTIFIKATZEA

B. TOLOSA

APATTAERREKA ESKUALDEKO INDUSTRIALDEAREN "18.1 (TOLOSA) – IBARRAKO LURSAILAK" AZPIESPARRUAREN HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA hasieran onartzeari buruz Tolosako Udalaren ebazpenean ezarritako baldintzak (2019ko maiatzaren 27an egindako Gobernu Batzordea):

6. Azpiegiturei dagokienez, udal-ingeniariaren eta dagozkien Administrazioen eta Erakundeen aldeko txostena jaso beharko da.

Administrazio hidraulikoaren artean organo goren gisa, Ekialdeko Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren aldeko txostena jaso da.

URAREN aldeko txostena jaso da baldintza batekin: dokumentazio grafikoan hondoko draina adierazi beharko da. Zonakatze Xehatuaren, Lerrokaduren eta Sestren planoetan zuzenketa hori egin da. Azpiegituren gainean baldintzarik ipintzen ez denez, alderdi horri dagokionez txostena aldekoa dela jakintzat ematen da.

Bestalde, esparruko edateko ur eta saneamenduko azpiegituren arduraduna den aldetik, Gipuzkoako Urak erakundearen aldeko txostena jaso da.

Bi udal horietako ingeniari arduradunen txostenik jaso ez denez, Plan Berezi honetan aipatutakoa ontzat ematen dutela ulertzen da.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2018H1050001-1 Memoria/1. Memoria ()